1. Estudio preliminar de las condiciones de operación para la pirólisis y el tratamiento termo-catalítico de los vapores de pirólisis. Con este objetivo, se han estudiado el efecto de la velocidad de calentamiento ( $3\text{-}12\text{ }^{\circ}\text{C min}^{-1}$ ) del reactor de pirólisis, así como la influencia de la temperatura, los catalizadores (zeolita HZSM-5 dopada con níquel y el catalizador comercial de reformado Katalco 57-4Q) y los diferentes materiales de relleno (naturaleza y/o tamaño de partícula) del segundo reactor. La velocidad de calentamiento más adecuada para la pirólisis es  $3\text{ }^{\circ}\text{C min}^{-1}$ . Para el tratamiento de vapores de la pirólisis, se ha observado que a  $900\text{ }^{\circ}\text{C}$  y en presencia del material refractario con el tamaño de partícula más pequeño ( $0,5\text{-}1\text{ mm}$ ) se consigue disminuir la mínima producción de líquido y aumentar la cantidad de gas.
2. Optimización del proceso de reciclaje de CFRP para aumentar el rendimiento del gas con la disminución de los líquidos y optimizar la composición del gas para conseguir gases de alta calidad como el  $\text{H}_2$ . Así, se han establecido diferentes temperaturas ( $700\text{ }^{\circ}\text{C}$  -  $900\text{ }^{\circ}\text{C}$ ) y diferentes catalizadores para optimizar los vapores de pirólisis (mediante craqueo y reformado). Se han utilizado los siguientes catalizadores: 1Pd10Co30Ni/Olivino preparado en el laboratorio, una zeolita comercial (HZSM-5) y un catalizador comercial (Katalco CRG-LH) también basado en Ni y ampliamente utilizado en la industria para el reformado de vapor. Además, se han dado pasos hacia la viabilidad económica del proceso de reciclaje mediante el ajuste de las condiciones de operación del tratamiento de pirólisis y tratamiento de vapores de pirólisis. Los mejores resultados (menor cantidad de líquido y  $93,2\%$  (% vol.) de gas de síntesis, siendo  $72,3\%$  (% vol.)  $\text{H}_2$ , se han obtenido estableciendo en el reactor tubular  $800\text{ }^{\circ}\text{C}$ , en presencia del catalizador CRG-LH y relleno refractario ( $0,5\text{-}1\text{ mm}$ ).
3. Adaptación y caracterización de los sólidos pirolizados llevando a la práctica la Teoría de Diseño de Experimentos y utilizando la Metodología de Superficies de Respuesta (RSM) para diseñar un post-tratamiento de oxidación controlada técnicamente viable con el objetivo de conseguir fibras de carbono reutilizables. Se

ha demostrado tanto matemáticamente como experimentalmente que el establecimiento de largos tiempos de oxidación y bajas temperaturas es más efectivo para recuperar fibras de carbono limpias, siendo 500 °C y 165 min de tiempo de oxidación las mejores condiciones de operación. En estas condiciones, se ha logrado un 98,2% de rendimiento de eliminación de la resina.

4. Evaluación de la idoneidad del proceso para reciclar CFRP curados y verificación de la posibilidad de volver a fabricar nuevos materiales compuestos con fibras de carbono recuperadas. Esta etapa de la tesis se ha desarrollado en la Universidad Rey Juan Carlos (campus de Móstoles), concretamente en los laboratorios que pertenecen al área de conocimiento de Ciencia de los Materiales e Ingeniería Metalúrgica, integrada en el Departamento de Matemática Aplicada, Ciencia e Ingeniería de los Materiales y Tecnología Electrónica. Allí, se han comparado las propiedades mecánicas, los resultados de análisis *SEM* y análisis de conductividad eléctrica de los compuestos re-fabricados con los resultados de aquellos compuestos fabricados con fibras de carbono virgen. Se ha visto que en los usos donde son importantes el módulo de Young y el módulo de elasticidad en la flexión, no es necesario que las fibras de carbono estén 100 % limpias, mientras que en los casos donde esté en juego la resistencia interlaminar, cuanto más limpia esté la superficie de la fibra de carbono, mayor será la resistencia interlaminar, ya que mejora la adhesividad de la nueva resina.



**1. KAPITULUA: Aurrekariak: Karbono-zuntzaren  
ibilbidea eta norabidea**




## 1.1 Karbono-zuntza

Karbono-zuntzaren (KZ) eskari globala 2009 eta 2013 artean 26500 t izatetik 46500 t izatera iritsi zen. Adituek KZ-eskariak % 10eko urteko hazkundera izango zuela aurreikusi zuten [1]. Datuei erreparatuz, 2016an 65000 t-ko eskaria behatu zen eta aurreikuspenek diote 2025 arte handitzen jarraituko dela 175000 t-ko KZ-eskaria erdietsi arte [2].

Zuntzak garatzeko hiru material aurrekari dira erabilienak: poliakrilonitriloa, rayona eta petrolio-hondakina (mundruna). Poliakrilonitriloa (PAN) da hauen artean gehien erabiltzen dena, merkatuko KZ-en % 96-aren aitzindaria izanik ekoiztutako KZ kalitateagatik [3]. KZ-en ekoizpen prozesua, tenperatura altuak, disolbatzaileak, akabera-olioak edota gainazal tratamendurako erretxinak beharrezkoak diren kostu energetiko altuko prozesua da. Honez gain, erreaktoreetan eta labetan sortzen diren HCN, NH<sub>3</sub> edo NO<sub>x</sub> konposatuak isurtzen dira atmosferara. Hortaz, KZ-en ekoizpen prozesuak energia eta ingurumen inpaktu handia duela baieztatu daiteke.

Hainbat motatako zuntzak dauden arren (ikusi **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.**), karbono-zuntza da zuntzen artean elastikotasun-modulu altuena duena, batez ere modulu ertaineko karbono-zuntzak. Azken hau da hain zuzen ere industria mailan eskari handiena duen karbono-zuntza besteekin alderatuz [3], prezio altuenetarikoa daukan arren (100 € kg<sup>-1</sup>) [4]. Honez gain, karbono-zuntzak oso arinak dira (ikusi **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.**n, 1,8 g cm<sup>-3</sup> inguruko dentsitatea daukate), neke-erresistentzia eta eroankortasun elektriko ona daukate, kimikoki inerteak dira eta hedatze termiko koefiziente baxua daukate [3,5]. Ezaugarri guzti hauek onuragarriak dira industriako hainbat aplikaziorako.



**Irudia.** Zuntz desberdinen propietateak [4]: a) Modulu altuko karbono-zuntza; b) Modulu ertaineko karbono-zuntza; d) Erresistentzia altuko karbono-zuntza; e) E motatako beira-zuntza; f) S motatako beira-zuntza; g) Aramida; h) Polietilenoa.


KZ-en pisu arina, aparteko erresistentzia-mekanikoa eta materialaren iraunkortasuna direla eta, material hau historikoki gehien kontsumitu duen industria, industria aeronautikoa izan da. Denboran atzera eginez, 1950 eta 1980 urte artean industria aeronautikoan biziki ezagunak diren *Boeing* eta *Airbus* konpainiak karbono-zuntzeko material konposatua hegazkin komertzialetan, baita militarretan ere, erabiltzen hasi ziren. 1980-az geroztik, karbono-zuntzeko material konposatuaren presentzia handitzen joan da hegazkinaren % 50 (masaren %) izan arte *Boeing 787 Dreamliner*-aren kasuan eta % 53 (masaren %) *Airbus A350*-aren kasuan [6]. Karbono-zuntzeko material konposatuaren erabilpenak hegazkinaren pisua hasierako pisuarekiko % 20 jaitea ahalbidetzen du, hegazkinaren erregai-kontsumoa gutxituz eta hortaz, efizientzia energetikoa hobetuz eta atmosferarako karbono-isurpenak murriztuz. Abantaila hauek ikusirik, asko dira azken urteotan gogor sartu direnak material konposatuaren kontsumoaren merkatuan.

Material konposatu hauek bere ingeleseko aldaeratik eratorritako CFRP (*Carbon Fibre Reinforced Polymers/Plastics*) siglez ere ezagutzen dira. Ingeleseko izenari zor, karbono-zuntzez eta erretxina batez, hots, matrize polimerikodun batez, osotuak izaten dira. Karbono-zuntzak material konposatuari trakzioan eta flexioan lan egiteko erresistentzia bikaina eta zurruntasuna eskaintzen dio, matrize polimerikoa karbono zuntzak lerrokatuta mantentzeaz eta egitura-kargak beraiei transmititzeaz arduratzen den bitartean. Honi esker, altzairuak baino bi aldiz tentsio handiagoak jasan ditzaketen eta neke-erresistentzia handiagoko CFRP-z egindako egiturak diseina daitezke. Ildo beretik, aluminioa baino bi aldiz zurrunagoa eta aldi berean pisu erdia daukaten CFRP-ak lor daitezke [3].

*Composites Forecasts and Consulting LLC*-ko Chris Red-en aburuz [2], hurrengo urteetan KZ kontsumituko duten sektore nagusiak autogintza, presio-ontzigitza, haize-turbinagintza, aeroegituragintza eta hegazkin barruko atalak egiten dituzten sektoreak izango dira,

2. Irudian behatu daitekeen bezala. Bertan sumatu daiteke autogintzak, presio-ontzigitzak eta haize-turbinagintzak gorakada handia emango dutela, historikoki gailendu den hegazkingintzarako KZ-eskaria aldiz, egonkor mantenduz.





## 2. Irudia. Karbono-zuntz kontsumo globalaren aurreikuspena [2].

Goian aipatutako sektore hauetan ere karbono-zuntza errefortzu bezala erabiltzen da matrice polimeriko batean baitan. Matrice polimerikodun konpositeen barruan bi azpitalde desberdin ditzakegu, matrice termoplastikodun konpositeak eta matrice termoegonkordun konpositeak. Gehienetan erretxina termoegonkor batez osaturik egoten dira [3,5], hain zuzen ere epoxi, binilester, poliester edo polimero fenoliko erretxinaz [3].

## 1.2 Material konposatuaren fabrikazioa

Material konposatuaren edozein fabrikazio edo ekoizpen prozesutan produktuaren iraunkortasuna bermatzea da xedea (konpositearen lodiera, zuntzaren bolumena eta zuntzaren norabidea kontrolatuz). Honez gain, materialaren barneko hondar-tentsioak gutxitzea eta ekoizpen-prozesua ahalik eta merkeena izatea jomuga dira.

Era berean, material konposatuaren ekoizpen teknikaren hautaketa-prozesuan berebiziko garrantzia dute amaierako produktuaren diseinuak, ekoiztutako atalen amaierako konfigurazioak, ekoizpen-teknika desberdinen gaineko esperientziak eta ekoizpen-baliabideen eskuragarritasunak.

Arestian aipatutako parametroen besteko garrantzia du ere material konposatuaren fabrikazioan erabiliko den materialaren hautaketak. Materialen hautespena maiz guztiz lotuta egon ohi da erabiliko den fabrikazio-teknikarekin. Hortaz, fabrikazio-tekniken aurkezpenarekin hasi aurretik material konposatuaren ekoizpenean erabiltzen diren materialen aipamen labur bat egingo da.

### 1.2.1 Konposite-materialen hautespena

Konposite-materialen aukeraketa amaierako produktuaren eskakizunen menpe ez ezik, ekoizpen prozesuaren menpe ere egon ohi da [7]. Konposite-materiala hurrengo eratan aurki daiteke: zuntz lehor (erretxina bustiarekin) bezala, prepreg bezala eta aurremoldeatutako zuntza (zuntz lehor edo prepreg moduan). Konposite-materiala eta ekoizpen-prozesuen arteko erlazioa taularatu da 1. Taulan.

1. Taula. Fabrikazio-prozesu desberdinetan erabilitako konposite-materialak [7].

<b>Konposite-materiala</b> <b>Ekoizpen-prozesuak</b>	Preprega	Prepreg edo erbatza (lehorra)	Prepreg edo oihal (lehor) ehundua edo ehundu gabekoa	Aurremoldeatutako zuntz oihalak eta txikitutako zuntzak (lehorrak)
<i>Esku bidezko ijezketa</i>	X		X (X)	X
<i>Zinten kokatze automatikoa</i>	X			
<i>Zuntz-xerloen kokatzea</i>		X		
<i>Harilketa bidezko ekoizpena</i>		X (X)	X (X)	X (X)
<i>Pultrusioa</i>		(X)		
<i>Erretxina-transferentzia bidezko moldaketa</i>		(X)	(X)	X

## 1.2.2 Material konposatuen ekoizpen-prozesuak

### 1.2.2.1 Esku bidezko ijezketa edo *Hand Lay-Up*

Esku bidezko ijezketan, aldez aurretik ebakitako prepreg-a edo karbono-zuntz oihalak kontramolde kurbatuan etzanarazten dira nahi den norabidean. Aldez aurretik, 3. Irudiaren ezkerrean ikusi daitekeen bezala, tamainari dagokionez ere egokitu egin behar dira. Ostean, erretxina-gogortzaile nahaste eta kantitate egokia zabaltzen da karbono-zuntz edo prepreg-aren gainean. Ondoren, material konposatuaren baitan geratu daitezkeen aire-burbuilak aterarazten dira arrabolekin (ikusi 3. Irudia, eskuina).



**3. Irudia.** Karbono-zuntz oihalaren ebaketa (ezkerra) eta erretxinaren baitako aire-burbuilen arrabola bidezko kanporaketa (eskuina) esku bidezko ijezketan [8].

Azkenik, erretxina ontzeko, karbono-zuntza eta matrize polimerikoa moldearekin bat autoklabean sartu behar dira. Autoklabea, presiopean edo hutsean lan egiteko gai den eta temperatura-kontrolagailua duen kamara da. Honi esker, erabilitako erretxinaren arabera eta lortu nahi diren amaierako ezaugarrien arabera, ontze-ziklo desberdinak programatuko dira.

Material konposatuen ekoizpen teknika hau baliagarria da adibidez 4. Irudian ageri den kontainer edo edukiontziak ekoizteko.



**4. Irudia.** Esku bidezko ijezketa erabiliz ekoiztutako kontainerra [8].

### **1.2.2.2 Zinten kokatze automatikoa edo *Automatic Tape Laydown (ATL)***

Ekoiztu nahi den produktuaren egitura, kurbatura gutxiko osagaiez edo osagai leunez osaturik dagoenean, erabilgarria izan daiteke zinten kokatze automatikoan oinarritzen den teknika. Izan ere, teknika hau prepreg-zinten kokatze automatikoan oinarritzen da. 75-300 mm zabalera duten prepreg-zintak erabiltzen dira. Zinta hauek kontrol numerikoaren laguntzaz programatutako 5. Irudian ageri den gailuarekin etzanarazten dira moldearen gainean. Zintak etzanaraztearekin batera, hauek trinkotzeko ere gai da 5. Irudian ikusi daitekeen gailua. Gailu honekin guztiz kontrolatzen dira ezarritako kapa kopurua eta hauen orientazioa.



**5. Irudia.** Prepreg zinten kokatze automatikoa edo *Automatic Tape Laydown (ATL)* teknikan erabiltzen den zinta-kokatzailea.

1.2.2.1 atalean aurkeztutako teknikarekin alderatuz, metodo honek ekoizpen denboraren % 70-85-ko gutxitzea dakar. Hala ere, oso kurbatuak diren gainazaletarako ez da baliagarria, zinta-zabalera hain handia izanik, tolesdura eta inperfekzioak sortzeko arriskua baitago.

Edonola ere, teknika hau oso erabilgarria da hainbat industrian, esaterako, industria aeronautikoan. 6. Irudian ikusi daiteke zinten kokatze automatikoa erabiliz ekoiztutako hegazkin-hegoa. Kasu honetan ere, prepreg-aren baitako erretxinaren erabateko ontzea lortzeko, pieza autoklabean sartu behar da, tenperatura, presio eta denbora egokiak ezarriz.



**6. Irudia.** Zinten kokatze automatikoa edo *Automatic Tape Laydown (ATL)* teknika erabiliz ekoiztutako hegazkin-hegoa [9].

### 1.2.2.3 Zuntz-xerloen kokatzea edo *Fibre Placement (FP)*

Zuntz-xerloen kokatzea edo *Fibre Placement (FP)* deritzon teknika, 1.2.2.2 puntuan aurkeztutako zinten kokatze automatikoaren oso antzekoa da: zinten kokatzean oinarritu beharrean, zuntz-xerloen kokatzean oinarritzen da. Zuntz-xerlo hauek, 3000-12000 tarteko zuntz aurreinpregnatu kantitatea dute beraien baitan.

7. Irudian erreparatu daitekeenez, zuntz-xerloen kokatzeaz arduratzen den gailuak 6-14 xerlo kontrola ditzake era berean. Zuntz-xerloa prepreg-zinta baino askoz estuagoa izanik, geometria konplexuagoko piezak ekoiztu daitezke. Hala ere, zinten kokatze automatikoa baino ekoizpen-prozesu luzeagoa da. Hori dela eta, ekoiztu nahi den piezaren gainazala leuna bada, zinten kokatze automatikoa erabiltzea gomendatzen da.




**7. Irudia.** Zuntz-xerloen kokatzea edo *Fibre Placement (FP)* teknikarekin ekoiztutako pieza eta zuntz-xerlo kokatzailearen itxura.

Kasu honetan ere, zuntz-xerlo aurreinpregnatuen baitako erretxinaren erabateko ontzea lortzeko, pieza autoklabean sartu behar da, tenperatura, presio eta denbora egokiak ezarriz.

#### 1.2.2.4 Harilketa bidezko ekoizpena edo *Filament Winding*

Harilketa bidezko ekoizpena edo *Filament Winding* aurreinpregnatutako zuntz jarraiairen harilketan oinarritzen da. 8. Irudian ikusi daitekeenez, hariletan batuta dauden zuntzak orrazi banatzailetatik igaro, erretxinadun ontzitik pasatu, hagindun arrabolatik igaro eta gidaren bitartez mandrilean harilkatzen dira. Pieza, mandrilaren errotazio mugimenduaren laguntzaz birarazten da. Hortaz, teknika hau egokia izaten da errotazio-simetria duten piezentzako.



**8. Irudia.** Harilketa bidezko ekoizpena edo *Filament Winding* teknikari dagokion ekoizpen prozesua [10].

Hori dela eta, erabilgarria da erregai gordailu edo tankeak ekoizteko. 9. Irudian ikusi daiteke planeta arteko garraio sisteman erregai gordailu bezala erabiltzeko *SpaceX* konpainiak teknika hau erabiliz ekoiztu duen pieza.




**9. Irudia.** Planeta arteko garraio sisteman (*Interplanetary Transport System*) erabiliko den *SpaceX* konpainiak ekoiztutako erregai gordailua.

9. Irudian behatu daitekeenez, teknika honen bitartez tamaina handiko piezak ekoitzi daitezke. Piezaren ontze prozesuari dagokionez, lanpara infragorriak erabiltzen dira erretxina gelifikazio puntura iristeko eta ostean, labean sartzen dira piezak ontze prozesua bukatzeko.

### 1.2.2.5 Pultrusioa

Pultrusioa ebakidura konstanteko produktuak ekoizteko baliagarria den ekoizpen teknika jarraitua da. 10. Irudian ikusi daitekeenez, hariletan batuta dauden zuntzak erretxinaz betetako ontzitik pasazten dira gida eta arrabolen laguntzaz. Ostean, laginaren ontzea eta nahi den amaierako forma lortzeko, produktua berotutako molde batean sartzen da. Moldea sekzio konstantekoa da. Produktuaren molde barruko egoitzaren bora produktua prozesuan aurrera joateko zehaztutako trakzio indarraren menpe dago. Hortaz, trakzio indarraren aplikatze-maiztasuna edota abiadura erabakigarriak izango dira laginaren erabateko ontzea erdiesteko eta era berean, zehaztu beharrekoak izango dira erabiltzen den erretxinaren arabera.



10. Irudia. Pultrusio prozesuaren eskema [11].

Produktibitate edo emankortasun handiko sekzio konstantedun produktuak ekoizten dituzten industrietzat zeharo egokia da teknika hau. Esaterako, autogintza industrian 11. Irudian ageri den pieza egiteko egokia da pultrusioa.




11. Irudia. Pultrusioaren bitartez ekoiztutako material konposatuz egindako autoen transmisio-ardatzak.

### 1.2.2.6 Erretxina-transferentzia bidezko moldaketa edo *Resin Transfer Molding (RTM)*

Erretxina-transferentzia bidezko moldaketa, zuntz lehorra molde itxian sartzean datza ostean, katalizatutako erretxina sararazteko moldean eta aldez aurretik dagoen zuntza kapsulatzearekin bat, bien artean konpositea sortzeko. Erretxina moldean sartzeko 55 MPa inguruko presioak erabiltzen dira [7].

Fabrikazio prozesuan honako etapak bereizten dira: zuntzaren edo prepreg-aren kokapena molde barruan, moldearen ixtea, presiopeko erretxinaren sartzea, ontze-prozesuko beroketa eta desmoldaketa, 12. Irudian ikusi daitekeen bezala.



**12. Irudia.** Erretxina-transferentzia bidezko moldaketa edo RTM fabrikazio prozesuko etapa [12].

Ekoizpen teknika honen bitartez forma konplexudun pieza edota produktu oso handiak ekoitzi daitezke kostu handirik gabe. Hori dela eta, 2. Taulan ageri diren hainbat aplikazio arlotarako piezak ekoiztu daitezke metodo honen bitartez.




**2. Taula.** Erretxina-transferentzia bidezko moldaketa edo *Resin Transfer Molding (RTM)* teknika erabiliz ekoiztutako produktuen aplikazioak [7].

<b>Aplikazioak</b>	
Industrialian	Prezipitazio plater elektrostatiakoak Haize-errota palak Ur-deposituak
Aisialdian	Kanoa-arraunak Yateak Telebista-antenas Elurretako motoen egiturak
Eraikuntzan	Jesarlekuak Bainuontzi edo dutxak Teilatuak
Industria aeroespazialean	Hegazkin hego-zuakerrak Larrialdietako hegazkin-ateak Hegazkin hegoetako abiadura-galgak
Autogintza sektorean	Bastidorea Esekidura-balezta Auto-karrozeria Autobus-markesinak

### 1.2.2.7 Hutsarekin lagundutako erretxina-transferentzia bidezko moldaketa edo *Vacuum Assisted Resin Transfer Molding (VARTM)*

1.2.2.6 atalean aurkeztutako RTM teknikaren antzekoa da hutsarekin lagundutako erretxina-transferentzia bidezko moldaketa. Honako bi desberdintasun aipagarri ditu: alde batetik, bere izenari zor, erretxinaren transferentzia ponpa batek eskaintako hutsaren bitartez egiten da eta beste alde batetik, goialdeko molde zurruna ordezkatzuz, hutserako poltsa bat erabiltzen da.

Hutsarekin lagundutako erretxina-transferentzia bidezko moldaketan hurrengo pausuak jarraitu behar dira: zuntz-oihalak eta material osagarriak erabiliz 13. Irudiaren baitako (a) irudian ageri den muntaia egin behar da, ostean, muntaia labean sartu eta ponpa martxan jarritz, erretxina-transferentzia gauzatzen da, (b), (c) eta (d) egoeretatik igaroz. Aipatutakoarekin bat, teknika honetan toki berean eta bata bestearen atzetik egiten dira erretxinaren transferentzia eta ontze prozesua.



**13. Irudia.** Hutsarekin lagundutako erretxina-transferentzia bidezko moldaketa edo *Vacuum Assisted Resin Transfer Molding (VARTM)* teknikan erabilitako muntaia.

Oro har, RTM teknikarekin alderatuz, piezen geometriaren ikuspuntutik aukera gehiago eskaintzen dituen ekoizpen teknika da eta piezen itxura aldaketetara hobeto egokitzen dena, batik bat, molde zurrun bakarra duelako behealdean. Honez gain, zuntz portzentaje handiagoak (bolumen portzentaje) eta porositate baxuagoak lortzen dira [7]. Hala ere, hutsaren ezarpenak batzuetan inpregnagarritasunaren eraginkortasuna murriztu dezake. Prozesu-kostuei dagokienez, hasierako inbertsioa txikia izan arren, teknika honetan material osagarri asko erabili beharra dagoela ikusi da.

### 1.3 Karbono-zuntz hondakinak

Orain arteko eta hurrengo urteetan espero den karbono-zuntzeko konpositeen eskari-hazkudearen ondorioz, aurreko atalean deskribatutako fabrikazio-prozesuetan sortutako hondakinen, ekoizpen-hondakinak deitzen direnak, produkzioa ere handituko dela aurreikusi daiteke. Industria aeronautikoan ezaguna den *buy to fly* ratioa 3,5:1 izatera iritsi daitekeela zenbatetsi da [13]. Zenbatespen honen arabera erosten den CFRP materiala 3,5 handiagoa da, fabrikazio-prozesu ostean, azkenik, hegazkinaren parte denarena baino. Hondakin hauez gain, bizi-erabilgarriaren amaierara iritsi diren CFRP-hondakinak ere kontuan hartu behar dira.

Industria aeronautikoaren kasuan, hegazkingintza ekoizpen-prozesuan gehien erabiltzen den teknika “pre-preg teknologia” da, ekoizpenaren automatizazioa ahalbidetzen duelako. Hau da, teknologia honek lehengai bezala erretxina polimerikoarekin aurreinpregnatutako karbono-zuntza erabiltzen du [14,15].

Pre-pregak biribilki moldagarrietan banatzen dira eta beraien kudeaketak oso zorrotza behar du izan: karbono-zuntzari itsatsita dagoen erretxina denbora luzez giro temperaturan egonez gero, guztiz polimerizatzea heldu daitekeelako, materialaren propietate mekanikoak txartuz eta ondorioz, “pre-preg iraungitua” izatera igaroz, hau da, material baliogabe eta hondakin bihurtuz. Giro-baldintzen eraginpean egon daitekeen denbora maximoa 240 eta 720 ordu tartean dago (10-30 egun), materialaren arabera. Pre-prega egoera onean mantentzeko  $-18\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an ( $0\text{ }^{\circ}\text{F}$ ) eta hezetasun kontrolatuko gunean gorde behar da. Hala ere, erositako pre-preg materiala urte bete baino gehiago badago gordailuan, hau ere “pre-preg iraungitua” sailkatzen dute automatikoki, CFRP hondakin-ekoizpena handituz. Kontuan hartuta Airbusen Europako hegazkin-ekoizpen totalaren % 25a (bolumen %) Espainian egiten dela [16], balioetsi daiteke ekoizpen prozesuko hondakin kantitate garrantzitsu bat Espainian sortuko dela. Gainera, hegazkingintzan CFRP-z egindako produktuen ekoizpen-prozesuan sortutako hondakin totalaren %56-70 pre-preg hondakinek osatzen dute [13]. Gainerako portzentajea KZ lehorrei eta akastun pieza fabrikatuei dagokie.

Pre-preg hondakina, hondakin arriskutsua da, hots, Europar Batzordeko 2014/955/EB Erabakian agertzen den Europako Hondakinen Zerrendaren (EHZ) baitan aurkitzen da hondakin arriskutsu moduan sailkatuta, EHZ 080409\* kodearekin. Kode honen baitan disolbatzaile organikoak edo beste substantzia arriskutsuak dituzten itsasgarri-hondakin edota zigilatzaile-hondakinak daude. Hondakin arriskutsu kategoria


ezarri zaio, pre-pregaren baitan dagoen erretxina termoeonkorra material guztiz ondua ez delako, eta horrek ingurunera hedatzea eta langileen larruazaleko gaixotasunak sortzea ahalbidetzen du.

Gaur egun pre-preg hondakinek jasaten duten tratamendua 100 € t<sup>-1</sup> kostua daukan ontze-prozesua da. Ontze-prozesu honetan pre-preg hondakina autoklabe batean sartzen da, non temperatura garaiak eta presio zehatzak ezartzen baitira. Horrela, erretxina polimerizatu egiten da, hots, gogortu eta ondorioz inertizatu, hondakin arriskutsua izatetik hondakin ez arriskutsua izatera igaroz. Tratamendu hau jasan ostean hondakina, hondakin ez arriskutsuen zaborteaira eraman daiteke. Beste alde batetik, hondakin hau erraustegietan edota beste prozesu termiko batzuetan ere (zementuaren ekoizpenean, alegia) erre daiteke.

Europako hondakinei buruzko 2008ko azaroaren 18ko Europako Parlamentuko eta Batzordeko 2008/98/CE Zuzentarauak, hots, Hondakinen Esparru Zuzentarauak (HEZ), ezartzen duen bezala, hondakinen kudeaketaren hierarkian lehentasun gutxien daukaten tratamenduak zaborteagian deuseztatzea eta erraustea dira.

#### 14. Irudia. EAEko hondakin kudeaketaren hierarkia.[18]

n ageri da aukeraok Euskal Autonomi Erkidegoko hondakin-kudeaketaren hierarkian ere azken postuetan daudela. Honez gain, CFRP hondakinen zabortegetarako isurpena debekatzen hasi dela antzeman da Europako herrialde batzuetan, Alemanian esaterako, eta Europako beste herrialde batzuetan aplikatzen hasiko direla iragarri daiteke [17].



**14. Irudia.** EAeko hondakin kudeaketaren hierarkia.[18]

Behaturik KZ-ren merkatuko eskaria gero eta handiagoa, KZ-ren prezio garaia, KZ-ren ezaugarri mekaniko bikainak eta egungo ekonomia zirkularra ezartzearen beharrezana, egokiena CFRP hondakin guztiak berrerabili edota birziklatzea dela dirudi. Batez ere, pre-preg hondakinak, ontze-prozesuak dakarren gastu energetiko eta ekonomikoak ekiditeko.

## **1.4 Birziklapen teknikak**

Aurreratu beharra dago, matrize termoeogonkordun konpositeen birziklapena ez dela gauza erraza. Alde batetik, material erretikulatuak direlako, hortaz, ezin dira urtu eta birmoldatu matrize termoplastikoekin gertatzen den bezala. Hala eta guztiz ere badira, poliuretanoak kasu, tratamendu erraz batekin hasierako monomeroetara itzuli daitezkeenak. Baina termoeogonkor ohikoenak ez dira despolimerizazioaren lagun eta beste teknika batzuetara jo behar izaten da. Beste alde batetik, CFRP-ak mota desberdinetako osagaiekin eginda daude (erretxina, zuntza, etab.) eta honek ere birziklapen zuzena zailtzen du. CFRP hondakinak birziklatzeko bi bide nagusi bereiz daitezke [19]: birziklapen mekanikoa eta KZ berreskuratzea posible egiten duen bidea.


### **1.4.1 Birziklapen mekanikoa**

Birziklapen mekanikoa materialaren birrintze, txikitze edota ehoketari dagokio. Birziklapenean lortutako produktua zikloi batetik pasarazten da, bi frakzio bereiziz: bata erretxinan aberatsa den produktu pikortsua eta bestea, zuntzean aberatsa den produktu izpitsua [20,21]. Teknika hau balagarria izango da batez ere bizi-erabilgarriaren amaierara iritsi diren hondakinentzat. Pre-preg hondakinen tratamendurako erabiliz gero txikitze edo ohatze-makinetan itsasgarritasun-arazoak zor daitezke. Teknika hau erabiliz lortzen den produktua erabilgarria izango da MAT izenez ezagutzen diren oihal itxurako materiala lortzeko (ikus 15. Irudia) edota eraikuntza-industrian asfalto edo zementu betegarri gisa erabiltzeko [22]. Patente ugari daude [23,24], baina birziklapen mekanikoa erabiltzen duten hainbat konpainia ere. Adibidez, *ERCOM* Alemanian eta *Phoenix Fiberglass* Kanadan [20]. Aipaturiko enpresek beirazko zuntza berreskuratzen dute gehienbat. Badira ere karbono-zuntza lortzeko egindako ikerketak, baina purutasun baxuko zuntza lortzen da [21,25,26].



**15. Irudia.** Karbono-zuntzeko MAT-a [27].

Birziklapen mekanikoaren desabantailak hurrengoak dira. Hasteko, ez da posible erretxina guztiz kentzea. Gainera, zuntzaren tamaina asko txikitzen da eta bere erresistentzia-propietateak nabari moteltzen dira. Ondorioz, berreskuratutako zuntzaren berrerabilpena balore baxuko aplikazioetara murrizten da. 16. Irudian birziklatze mekanikoan erabiltzen den tresna ikusi daiteke, mailu-errotaren eskema, alegia.



**16. Irudia.** Mailu-errotaren argazkia eta eskema [28].

KZ berreskuratzea posible egiten duen bideari dagokionez, zuntza material konposatu hondakinetatik solte eta garbi berreskuratzean datza, prozesu kimikoak edo termikoak baliatuz konposatearen matrize polimerikoa, erretxina alegia, desagiteko. Modu horretan, zuntza berrerabiltzeko aukerak handitzen dira [19]. Bide honen baitan hainbat birziklapen prozesu aurkitzen dira: prozesu kimikoen barruan, hidrolisia, glikolisia etabar, eta prozesu termikoen barruan, ohantze-fluidizatuko oxidazio kontrolatua eta pirolisia.

### **1.4.2 Birziklapen kimikoa**


Birziklapen kimikoan, erretxina polimerikoa disolbatu egiten da, balio altuko monomeroen edo oligomeroen lorpena eta era berean aldaketarik jasan gabeko zuntzen lorpena helburu izanik [29–33]. Teknika honen desabantaila nagusienak, disolbatzaile kutsakorren kantitate handien beharrezana eta isuri aurretik hauek tratatu beharrak dakarren kostuari erantzun beharrezana dira. Honez gain, prozesu hauetan erretxina polimeriko mota bakarreko materialak tratatu daitezke (erretxina mota bakoitzak disolbatzaile mota batekin erreakzionatzen du), konposite kutsatuak alde batera utzi beharrik. Beraz, hondakin konposite zehatz eta ez kutsatuentzat aplikagarria da. Aipagarriak dira ere atal honetan baldintza superkritikoetan jarritako jariakinen erabilera CFRP-aren erretxina disolbatzeko [34]. Hauen kasuan, desabantaila nagusia baldintza superkritikoen lorpenean erabili beharreko presio altuak dira batik bat. Baldintza horietan gainera, disolbatzailea korrosiboa izan daiteke [34].

Orokorrean, jarraian azalduko diren prozesu termikoak garapen-maila aurreratuagoan daude prozesu kimikoak baino, batik bat ingurumen edota segurtasun arazoak sortu ditzaketen disolbatzaile edo nahaste oxidatzaileak erabiltzen baitira azken honetan [35].

### **1.4.3 Ohantze fluidizatuko oxidazio kontrolatua**

Ohantze fluidizatuko oxidazioa, laborategi mailan ikertua izan da bai beira-zuntzezko konpositeekin [36] baita karbono-zuntzezkoekin ere [37]. Prozesuan zehar aireztatutako ohantze fluidizatua berotu egiten da material konposatuaren erretxina oxidatuz eta zuntzak berreskuratuz erreaktorearen irteeran kokatutako zikloi bati esker. Konpositeak prozesu honetan sartzeko, aldeztu aurretik txikitu egin behar dira (0,3-1,9 mm). Teknika honen trabetariko bi, lortutako zuntzaren tamaina txikia eta beraien propietate mekanikoen galera dira. 17. Irudia; **Error! No se encuentra el origen de la referencia.** ikusi daiteke ohantze fluidizatu-instalazio baten eskema.





17. Irudia. Ohantze fluidisatuko oxidazio prozesuaren eskema [6].

#### 1.4.4 Pirolisia

Azkenik, pirolisi-prozesua edo krakeo termikoa, oxigeno ezean, atmosfera inertean alegia, konposite-hondakina temperatura erdi-garai batean (400 °C-600 °C) murgiltzean datza. Horrela, material konposatuaren matrize polimerikoa desegiten da pisu molekular baxuko konposatuak sortuz (gasak eta likidoak). Hauek, hasiera batean, erregai moduan erabil daitezke edota produktu kimikoen iturri bezala. Zuntzak kaltetu gabe geratzen dira eta ia gaineko materia polimerikorik gabe. Pirolisian beste teknikekiko hurrengo abantailak nabarmentzen dira: 1) materialaren ustiapen oso ahalbidetzen du alde batetik zuntza berreskuratzen delako eta bestetik erretxinaren deskonposiziotik eratorritako gasak eta likidoak lortzen direlako, 2) beste material batzuekin nahastuta dauden konposite-hondakinak onartzen ditu eta 3) berreskuratutako zuntzek hasierako zuntzaren propietate mekaniko gehienak mantentzen dituzte. Karbono-zuntzezko hondakinei aplikatutako pirolisi tratamendua, suspertzen eta garatzen hasi den teknologia berria da. Azken 10 urteotan zientzia arloan, pirolisiaren bidezko karbono-zuntzaren birziklapenari buruzko hainbat artikulu argitaratu dira. Hala ere, gutxi dira mundu mailan teknika hau martxan duten enpresak.

3. Taulan, arestian aipatu diren birziklapen prozesuen abantailak eta desabantailak laburbildu dira.

**3. Taula.** Karbono-zuntza birziklatzeko tekniken abantailak eta desabantailak [35].

<b>Prozesua</b>	<b>Abantailak</b>	<b>Desabantailak</b>
<b>Birziklapen mekanikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozesu sinplea da</li> <li>• Zuntzak eta erretxina berreskuratzen dira</li> <li>• Ez dira erabiltzen/sortzen elementu arriskutsuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errendimendu mekaniko xumea</li> <li>• Egituratu gabeko zuntz lodi, latz eta aldakorrak</li> <li>• Material konposatuak berrekoizteko posibilitate mugatua</li> </ul>
<b>Birziklapen kimikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuntzen propietate-mantentze maila oso altua</li> <li>• Matrizetik produktu baliagarriak berreskuratzeko aukera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berreskuratutako karbono-zuntzen erretxina berriarekiko itsasgarritasun oso baxua</li> <li>• Kutsadurarekiko tolerantzia baxua</li> <li>• Disolbatzaile arriskutsuak erabiliz gero, ingurumenarekiko kalteak sortzeko posibilitate altua</li> <li>• Prozesu gehienak eskala handiago batera igarotzeko zailtasunak</li> </ul>
<b>Ohantze fluidizatuko oxidazio kontrolatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kutsadurarekiko tolerantzia altua</li> <li>• Berreskuratutako karbono-zuntz gainazaleko hondakin eza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berreskuratutako zuntzean propietate mekanikoen galera handia</li> <li>• Zuntz-luzeraren degradazioa</li> <li>• Egituratu gabeko zuntzaren lorpena</li> <li>• Matrizetik eratorritako materia-berreskurapen eza.</li> </ul>
<b>Pirolisia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuntzen propietate-mantentze maila altua</li> <li>• Erretxina degradaziotik energia berreskuratzeko aukera</li> <li>• Berreskuratutako karbono-zuntzaren eta erretxina berriaren arteko itsasgarritasun handia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuntzaren gainean txar-a edo polimero aztarnak aurkitzeko aukera</li> <li>• Prozesuan ezarritako parametroen arabeko berreskuratutako zuntzaren kalitatea</li> <li>• Prozesuan sortutako lurrunen tratamendu-beharrizana</li> </ul>

## 1.5 Pirolisia industria mailan

Patentedun bi pirolisi-teknologia aipatu daitezke, *ELG Carbon Fibre Ltd.* eta *Karborek S.P.A.*-k ustiatuak. Lehenengoa Erresuma Batuan dago eta bigarrena Italian. Hauekin batera, jarraian azaltzen diren CFRP-en birziklapen tratamendurako pirolisia erabiltzen duten hainbat enpresa jarri ziren martxan Japonen, Estatu Batuetan eta Alemanian.

- Erresuma Batuan, *ELG CARBON FIBRE LTD.* Karbono-zuntzez gogortutako 2000 t urte<sup>-1</sup> konposite kudeatzen ditu eta 1000 t urte<sup>-1</sup> KZ berreskuratzen dituzte. Bertatik sortutako pirolisi-gasa erreta energia lortzen du eta ez du pirolisi likidoen tratamendurik egiten. Lortutako zuntzak oso laburrak dira eta beraiekin pellet-ak egiten dituzte [38].
- Italian, *KARBOREK S.P.A.*-k pirolisi eta oxidazio prozesu konbinatu bat patentatu zuen [39]. 2009 arte martxan zegoen baina orain, ez dago martxan dagoen erreferentziarik.
- Japonen, *JAPAN CARBON FIBER MANUFACTURERS ASSOCIATION (JCMA)*. 2014an *JAPAN CHEMICAL FIBERS ASSOCIATION*-ekin batu zena, 1000 t karbono-zuntzezko konposite urteko tratatzen zituen pirolisiaren bidez. Gaur egun, ez dago martxan dagoenaren zantzurik.
- EEBBetan, *MATERIALS INNOVATION TECHNOLOGIES RCF (MIT-RCF)* zena orain *CARBON CONVERSIONS, INC.* da. Berreskuratutako karbono-zuntz materialarekin MAT-ak egiten dituzte edo pellet forman saltzen dituzte [38].
- Alemanian, *CFK VALLE STADE RECYCLING GMBH & CO. KG.* 2010ean Hamburg-Harburgeko Unibertsitatearekin batera diseinatutako pirolisi prozesu jarrai bat martxan jarri zuten (oxidazio etapa bat gehituz). Zuntz ehotuak, zuntz laburrak eta ehun-gaiak dira produktu nagusiak [40,41].

Industria mailan pirolisi-prozesuan lortutako lurrunei egiten zaien tratamenduari buruz ez dago informazio argirik. Itxura batean, guztiz isolatutako hodiedatik errekontza-erreaktore bateraino eramaten dituzte lurrunak, kondentsazioak ekiditeko.


## 1.6 Pirolisi prozesua sakontasunean

### 1.6.1 Pirolisi-prozesuaren azalpen teorikoa


Pirolisia konposatu organiko makromolekularren bero bidezko deskonposizioa da ingurune ez oxidatzaile, hau da, inerte batean. Deskonposizio hau, elkarren segidako erreakzioen bitartez gauzatzen da.

Konposatu organikoak tenperatura altuen eraginpean ezartzen dira eta hornitutako bero energiaren eraginez, bai C-C loturak bai C-H loturak, apurtzen hasten dira hasierako egitura organiko konplexuak desagitea lortuz. Haustura bakoitzak, erradikal aske izeneko energia altuko bi molekula sortzen ditu (haustura homolitikoa). Molekula berri hauek oso ezegonkorak dira. Beraz, egoera egonkor batera iristeko asmoarekin, beste haustura homolitiko batzuk eragiten dituzte alboko molekuletan. Horrela, kate-erreakzioa lortzen da, kate laburreko molekula organikoen sorkuntza ahalbidetuz. Hornitutako energia ez denean haustura gehiago eragiteko bestekoa, erradikalek beraien artean erreakzionatzen dute molekula egonkorak sortuz.

Guzti honi, *cracking* termikoa edo krakeo termikoa deritzo (ikusi 18. Irudia). Cracking termikoaren adibide bat [28] 18. Irudia) eta erretxina termoegonkorren kasuan solido eta lurrun egoeren artean gertatzen den sistema kimikoa da. Kate-erreakzioen bitartez ematen denez, hiru etapa nagusitan bana daiteke: Hasiera, hedapena eta amaiera, 19. Irudian frogatu daitekeen bezala.



18. Irudia. Cracking termikoaren adibide bat [28].



### 19. Irudia. Krakeo termikoaren mekanismoa [42].

Erreakzioan sortzen diren produktu zehatzak lehengaiaren araberakoak dira baina orokorrean pirolisian hiru frakzio lortzen direla esan daiteke: solidoa (deskonposatu gabe gelditutakoaz eta karbonizazioaren ondorioz sortutakoaz osotutako frakzioa), likidoa (lurrunak hoztu ondoren sortutako mundrun edo olio fluxua, batzuetan ur-fase batekin agertua) eta gasa (lurrunak hoztu ondoren gas egoeran gelditzen diren konposatuez osotua, besteen artean, hidrogeno, karbono monoxidoa, karbono dioxidoa, metano eta beste hidrokarburoak). Hiru frakzio hauen konposizioa eta kantitate erlatiboa, erreaktore-mota eta lan-baldintzen (tenperatura, beroketa-abiadura eta pirolisi-lurrunen egonaldi-denbora) araberakoa da.

## **1.6.2 Karbono-zuntz hondakinen pirolisi-prozesuaren optimizazioa**

1.5. puntuan ikusi den legez, industria mailan mugimendu txiki bat nabaritzen den arren, ezaguna da pirolisiak badituela kontuan hartu beharreko hainbat puntu: 1) prozesuan ezarritako baldintzen arabera zuntzaren propietate mekanikoak gehiago edo gutxiago kaltetuak izan daitezke, hala nola, trakzio erresistentzia eta *Young*-en modulua [43]. 2) Txar (erretxinaren degradazio termikoaren ondorioz sortutako ikatz-hondakina) delakoaren agertzea zuntzen gainean, berrerabilpen-aplikazioak murriztuz eta propietate fisikoetan negatiboki eraginez [44,45]. 3) Pirolisian sortutako lurrunen konplexutasun nabarmena [6,34].

Pirolisiaren bitartez berreskuratutako zuntzeko solidoari dagokionez, sortu daitezkeen txar edota polimero arrastoak, pirolisi osteko oxidazio prozesu kontrolatu baten bitartez desagerrarazi daiteke [46]. Hau horrela izanda, berreskuratutako karbono-zuntzak erretxina berriarekin berriro inpregnatu daitezke ondoren aplikazio ez estrukturaletan [47] edo estrukturaletan [19] erabiltzen diren materialak fabrikatzeko edota material termoplastikoen fabrikazioan errefortzu moduan erabil daitezke [48]. Pirolisian lurrunak kondentsatzen utziz gero jakina da lortutako likidoei zaila dela irtenbide zehatz eta zuzen bat aurkitzea merkatuan edota findegietan onartua izatea. Produktu kutsakorak izan ohi dira: hidrokarburo aromatikoak, naftenikoak, linealak, nitrogenodun eta oxigenodun konposatu organikoak, tamaina molekular desberdinetakoak, etab., agertzen dira [49,50]. Beraz, karbono-zuntzeko hondakinen arazoa konpondu nahian, beste hondakin arriskutsu bat ekoizten hastearen arriskua dago. Kondentsaezinak diren konposatuei, hots, gasai dagokionez, hidrogeno gutxi, karbono monoxido gutxi, karbono dioxido eta hidrokarburoz, hau da, CH<sub>4</sub>, C<sub>2</sub>, C<sub>3</sub>, C<sub>4</sub>, C<sub>5</sub>, C<sub>6</sub>, osoturik egon ohi dira [46,49].

Likidoen konposizio ez-erakargarria ikusirik, gasen kantitatea maximizatzea eta konposizioa optimizatzea izan behar du helburu, era berean likidoen kantitatea txikiagotzea erdietsiz. Horretarako, ikerketa taldearen baitan egindako azkenengo tesian oinarrituta [51], pirolisi-erreaktorearekiko seriean kokatutako hodi-erreaktore bat ezarri da, bertan krakeo termiko edota termiko-katalitiko gauzatzeko. Era horretan, gasen kantitatea handituko da, likidoena txikituz. Likidoen kantitatea txikitzearekin bat, beraien konposizioa hobetuko da konposatu organikoa gutxituz edota desagerrararaziz [51].

### 1.6.2.1 Lurrunen tratamendua

#### 1.6.2.1.1 Tratamendu termikoa

Kasu honetan, lurrunen tratamendu termikoa izanik, tratatu beharreko konposatuak pirolisian tratatu beharrekoen baino kate-luzera txikiagoak izango dira, aldez aurretik pirolisi-erreaktorean krakeo termikoa jasan baitute. Prozesuan lortuko den krakeo maila eta amaierako produktuak hasierako laginak jasandako tenperaturaren menpe daude batez ere. Orokorrean, gero eta tratamendu tenperatura garaiagoa, orduan eta krakeo errendimendu handiagoa lortzen da. Hala ere, badira zenbait parametro garrantzitsuak izango direnak tratamenduan eta eragin zuzena izango dutenak emaitzetan, hala nola, egoitza-denbora edota lurrunen elikadura abiadura. Oro har, egoitza-denbora altuek krakeo-errendimendu altuak sortuko dituzte [51].

Krakeo termikoa sortaraztearen helburu bakarra, hau ezean kondentsazioan sortuko diren mundrun molekulak krakeatzea da kate-luzera laburragoko konposatuak lortzeko. Hori horrela izanik, pirolisi-lurrunetatik, likido erabilgarriak erdiesteko aukera dago, kasu batzuetan fase organikoa deuseztatzea heldu arte, hots, fase urtsuarekin soilik geratuz. Gasen kasuan, pisu molekular baxuko hidrokarburoak eta hidrogenoa lortu daitezke, esaterako. Gainera, lurrunen tratamendu termikoa ez ezik lurrunen tratamendu termo-katalitikoa baliagarria izan daiteke lurrunen konposizioa krakeoa eta erreformatuaren bitartez optimizatzen.

#### 1.6.2.1.2 Tratamendu termo-katalitikoa

Katalizatzaileen erabilerak eragin nabaria izaten du pirolisi prozesuetan: bai pirolisi-errendimenduetan, baita pirolisi-likido eta gasen konposizioan ere. Alde batetik, katalizatzaile azidoek krakeo-errendimendua handitzen dute likido-errendimenduak jaitzaraziz eta era berean gas-errendimenduak igoaraziz. Beste alde batetik, erreformatu-katalizatzaileak erreformatu erreazioak ( $C_xH_y + H_2O \rightarrow CO/CO_2 + H_2$ ) edo *Water Gas Shift* ( $CO + H_2O \leftrightarrow CO_2 + H_2$ ) sustatzeko gai dira, pirolisi-gasen  $H_2$  ekoizpena handituz.

Industria kimikoan, materia polimerikoen pirolisian erabiltzen diren katalizatzaileei dagokionez, erdiegituratuak [52,53], oxido metalikoak (nikel oxidoa adibidez) [54,55] eta batez ere solido azidoak (prozesu petrokimikoetako korrante astunen krakeoan erabilitakoak) dira ikertuenak. Aipatzekoa da zeolita puruen [56,57], eta oinarri zeolitikoa daukaten katalizatzaileen, esaterako FCC (*Fluid Cracking Catalysts*) erabilera [58,59].

Krakeorako zeolita-katalizazaileen erabilera eraginkorra ikusirik, katalizatzaile hauek pirolisi saiakuntzetatik eratorritako lurrunen optimizazio-ikerkuntzetan, abiapuntu izan dira [60–64]. Zeoliten artean, ZSM-5 zeolita ikertuena izan da, batez ere kiskaltze egoeran (hidrogeno forman), HZSM-5 bezala, alegia. HZSM-5-ak krakeorako eta desoxigenaziorako onuragarriak diren azidotasun altuko, aktibitate altuko eta gainazal hautagarritasun ona daukaten katalizatzaileak dira. HZSM-5-aren krakeo gaitasuna ezaguna da hainbat lanetan argitaratua izan delako [65–67]. Azidotasunari egotzi beharreko gaitasun honi esker, likidoen errendimendua jaitsi eta gasena igo egiten da. Honez gain, HZSM-5 katalizatzaileak frakzio oxigenatuak C<sub>1</sub>-C<sub>10</sub> tarteko hidrokarburo nahaste arinetan bihur ditzake deshidratazio eta desoxigenazio erreakzioen bitartez, CO, CO<sub>2</sub> eta H<sub>2</sub>O lortuz [68–70]. Hori dela eta, HZSM-5-a tesi honetan erabili den katalizatzaileetariko bat izan da pirolisi-lurrunen krakeoarekin pirolisi-lurrunen optimizatzeko, hau da, pirolisi-likidoak minimizatzeko eta pirolisi-gasetako hidrogeno kantitatea maximizatzeko.

Pirolisi-gasen hidrogeno kantitatea orokorrean krakeo-erreakzioen ondorioz handitzen den arren, hidrogenoa lortzeko era eraginkorragoa, hautakortasunaren ikuspuntutik, ur-lurrun bidezko erreformatua da [71–75]. Ur-lurrun bidezko erreformatuak, izenari zor, ura beharrezko duen prozesua da. Hala ere, ez da beti ura elikatu beharrik, maiz, pirolisi-lurrunetan baitago prozesua aurrera eramateko beste ur-lurrun. Edozein kasutan, katalizatzaile egoki baten presentzia nahitaezkoa da, erreformatua sustatuko duen katalizatzailearena, alegia. Katalizatzaile hauek euskarri azido eta fase aktibo (metala) batez osoturik daude.

Nikela (Ni) da fase aktibo gisa erabili den metalik ohikoena hainbat hondakin organikoren tratamenduan [76–78]. Nikel-katalizatzaileek mundrunen krakeoa eraginkorki sustatzen dute batez ere lan-baldintza egokienak ezarrita badaude [79–82]. Gainera, ikusi da nikeldun katalizatzaileek asko hobetzen dutela pirolisi-prozesuan lortutako hidrogeno gas errendimendua [83,84]. Euskarri dagokionez, material desberdinez ekoiztutako euskarri desberdinak erabili daitezke: Al<sub>2</sub>O<sub>3</sub>, ZrO<sub>2</sub>, TiO<sub>2</sub>, dolomita, olibinoa, etab. Beraien artean, alumina da metal aktibodun euskarri ohikoena [85]. Are gehiago, ikertzaile batzuen aburuz, Ni/Al<sub>2</sub>O<sub>3</sub> katalizatzaileek aktibitate hobeak dituzte katalizatzaile-euskarri bezala beste material bat erabiltzen duten katalizatzaileek baino [86,87]. Eta hori dela eta, industria mailan asko dira Al<sub>2</sub>O<sub>3</sub> euskarriko erreformatu-katalizatzaileak erabiltzen dituzten prozesuak, eta konkretuki Ni/Al<sub>2</sub>O<sub>3</sub> motako katalizatzaileak [88].



Ni zeolitei ere gehitua izan daiteke. Kasu horretan, katalizatzaile-funtzio desberdinen aktibitate erlatiboa (metala/azidoa) interes altuko kontua da [89]. Katalizatzaile hauen aktibitate bifuntzionala (funtzio azidoa eta metal funtzioa) dela eta, koke sorrera-tasa gutxitzen da [90]. Are gehiago, zeolita-eraldatu hauek, krakeorako aktibitate hobetua erakutsi dute [91,92].



## **2. KAPITULUA: Tesiaren helburuak eta nondik norakoak**



**1. Kapitulu**an azaldutako aurrekariak kontuan hartuta, jarraian tesiaren helburuak eta nondik norakoak azalduko dira **2. Kapitulu** honetan.

Tesi honen helburu nagusia karbono-zuntzaren eskari globalaren hazkundearen iragarpena ikusirik, industria desberdinek sortzen eta sortuko dituzten karbono-zuntzezko material konposatu hondakinen kudeaketa-arazoei irtenbide bat ematea da, pirolisian oinarritutako birziklatze-prozesu baten bitartez. Ikerketa lan honetan material konposatu berriak ekoizteko erabilgarriak diren karbono-zuntz birziklagarriak berreskuratzea izango da jomuga, eta beste alde batetik, pirolisian erretxinaren deskonposaketatik eratorritako gasak eta likidoak baliagarriak izatea energia iturri edota produktu kimiko bezala. Horreterako, hurrengo helburu partzialak bete behar dira:

- Karbono-zuntzaren propietateak bermatzen dituzten eta gasen eta likidoen ezaugarriak eta erabilerak optimizatzen dituzten pirolisi-baldintza egokienak lortzea.
- Karbono-zuntz birziklagarriak lortzeari dagokionez, pirolisi beroketa-abiaduraren eragina eta pirolisi osteko karbono-zuntz egokitzapen prozesuaren (oxidazio kontrolatua) beharizana aztertzea eta ikertzea.
- Pirolisi-lurrunen optimizazioari dagokionez, pirolisi-lurrunen tratamendurako tenperatura, pirolisi-lurrunen tratamendurako betegarriaren presentzia eta betegarri-ezaugarrien eragina, eta pirolisi-lurrunen tratamendurako hainbat katalizatzaile desberdinen eragina aztertzea.
- Karbono-zuntzen birziklagarritasuna frogatzea, karbono-zuntz berreskuratuekin material konposatu berriak ekoizten eta beraien kalitatea aztertzen.

Oro har, diseinatu, garatu eta balioztatu nahi den prozesuak hurrengo oinarritzko baldintzak bete behar ditu: 1) ingurumenarekiko jasangarria izatea eta 2) teknikoki eta ekonomikoki lehiakorra izatea. Zehaztutako helburuen erdiespen arrakastatsuak berebiziko garrantzia izango du CFRP-en pirolisi-birziklapen prozesuaren ezarpen industrial bideragarria eta jasangarria izateko ingurumen-ikuspuntutik eta ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik.



### **3. KAPITULUA: Prozedura esperimental**

### 3.1 Laginak

Tesi honetan biltzen den ikerkuntza-lanean, hiru lagin mota erabili dira. Aztertutako lagin guztiak material konposatuak izan dira, zehazki, material polimeriko (erretxina) termoeonkor eta errefortzu-material batez (karbono zuntzak) osatuak. Hainbat irizpide erabili daitezke lagin hauek sailkatzeko orduan, hala nola, hondakin mota, material polimeriko mota eta laginaren baitako errefortzu-materialaren banaketa. Hondakin motari erreparatuz, bizi-amaierara iritsitako laginak eta ekoizpen prozesuan sortutako hondakinak bereizi daitezke. Material polimeriko motari dagokionez, erabilitako lagin guztiak material polimeriko termoeonkorra izan dute baina, erretxina desberdina: epoxia eta polibenzoxazina. Azkenik, errefortzu-materialaren banaketaren inguruan, norabide bakarreko errefortzua daukaten laginak eta ehun formako errefortzua daukaten laginak aztertu dira. Jatorriari dagokionez, erabilitako lagin guztiak industria aeronautikotik eratorritakoak izan dira.

4. Taulan tratatutako hiru laginen ezaugarriak ikusi daitezke laburbilduta. Bertan antzeman daiteke polibenzoxazina prepreg-a ekoizpen hondakina dela eta polibenzoxazina erretxina duen eta ehun erako karbono-zuntz banaketa duen lagina dela. Epoxi prepreg-a ere ekoizpen hondakina da, baina norabide bakarreko karbono-zuntz banaketa eta epoxi motako erretxina ditu. Azkenik, CFRP ondua, epoxi motako erretxina eta ehun erako karbono-zuntz banaketa duen bizi-amaierako hondakina da. 3.1.1, 3.1.2 eta 3.1.3 puntuetan aurkeztuko dira zehaztasunez aipatutako laginak.

4. Taula. Ikerketa lanean erabilitako laginen sailkapena.

	Hondakin mota		Erretxina mota		Errefortzu banaketa	
	<i>Ekoizpena</i>	<i>Bizi-amaiera</i>	<i>Epoxia</i>	<i>Polibenzoazina</i>	<i>Norabide bakarra</i>	<i>Ehuna</i>
<b>Polibenzoxazina Prepreg-a</b>	x			x		x
<b>Epoxi Prepreg-a</b>	x		x		x	
<b>CFRP ondua</b>		x	x			x


#### 3.1.1 Polibenzoxazina prepreg-a

Saiakuntzetan erabili den laginetariko bat iraungitutako polibenzoxazina prepreg-a da. Industria aeronautikoko ekoizpen-prozesutik eratorritako ehun formako karbono-zuntz banaketa duen ebakin-hondakina da. 7 µm-ko diametroa duten Toray T300/3k karbono-zuntzez (% 61, masaren %) eta polibenzoxazina izeneko material




polimerikoz (% 39, masaren %) osoturik dago. Karbono-zuntz eta erretxina masa-ehunekoak zehazteko erretxinaren oxidazio kimikoan datzan ASTM D3171-76 (*Standard Test Methods for Fiber Content of resin-matrix composites by digestion*) metodo estandarra erabili da. 3.5.1.4 puntuan aurkeztuko da metodoa pausorik pauso.

Polibenzoxazina polimero termoeonkor erretikulatua da. Hori dela eta, egonkortasun dimentsional eta termikodun polimeroa da. Hartara, suaren aurkako aplikazioetarako, isolatzaile edo estalki termiko bezala erabilia izan da instalazio elektrikoetan. Honez gain, berniz, laka eta itsasgarrietan ere erabili izan da [93]. 20. Irudia; **Error! No se encuentra el origen de la referencia.**n ageri diren monomero funtzioanitzekin kopolimerazioz lortutako polimeroa da polibenzoxazina. Erretxina fenoliko bezala sailkatzen da polimero hau. Benzoxazina monomeroak deribatu fenoliko, formaldehido eta lehen mailako amina baten elkarrekintzatik sortutako polimeroak dira [94].




**20. Irudia.** Benzoxazina monomero baten egitura molekularra [95].

Karbono-zuntzari dagokionez, orientazio bikoitzeko karbono-zuntz ehuna dela ikusi daiteke 21. Irudian, hau da, karbono-zuntz hari multzoak  $0^\circ$  eta  $90^\circ$  norabideetan kokatuta daude (ikusi 22. Irudian azalpen-eskema).



**21. Irudia.** Polibenzoxacina prepeg-tira bakana (ezkerra) eta erreaktorean sartu beharreko polibenzoxazina prepeg-multzoa (eskuina).

Hondakin-lagina xafletan iritsi den arren, 200 x 20 mm tamainako tirtetan ebaki da (ikus 21. Irudia) pirolisi-erreaktorean sartu dadin eta era berean, birziklapen prozesuan berreskuratutako karbono-zuntzak behar bezain besteko luzera izan dezan karakterizazio mekanikorako.



**22. Irudia.** Karbono-zuntz multzoak 0° eta 90° norabideetan kokatzearen azalpen-eskema [4].

Karbono-zuntzaren propietateei dagokionez, 5. Taulan laburbiltzen dira propietate nagusienak.


**5. Taula.** 7 µm-ko diametroa duen Toray T300/3k karbono-zuntzaren propietate nagusiak [96].

Zuntza	Trakzio-erresistentzia [MPa]	Young Modulua [GPa]	Luzapena [%]	Dentsitatea [g cm <sup>-3</sup> ]
Toray T300/3K	3530	230	1,5	1,76

### 3.1.2 Epoxi prepeg-a


Ikerkuntzan zehar erabili den beste lagin-hondakin bat *Airbus Operations SLU*-k bere hegazkin-ekoizpen prozesuan erabiltzen duen M21/34%/UD194/T800S/300ATL

epoxi prepreg-biribilkia izan da. 4. Taulan aipatu bezala, industria aeronautikotik eratorritako norabide bakarreko karbono-zuntzez (% 66, masaren %) eta epoxi (% 34, masaren %) erretxinaz osaturiko ekoizpen-hondakina da. Hondakinaren baitako epoxi-erretxina, *Hexcel* konpainiaren *Hexply M21*-a da. Epoxi bat denez, 23. Irudian ageri den oxido atomo bakana eta bi karbono atomodun talde epoxidoa darama baitan.



**23. Irudia.** Epoxi-erretxinaren baitako talde epoxidoaren egitura kimikoa [97].


Hau horrela izanik, epoxi erretxina sortzeko erabiltzen den aitzindariaren arabera epoxi erretxina desberdinak lor daitezke. 24. Irudian ikusi daiteke epoxi erretxina baten egitura kimiko orokor bat.



**24. Irudia.** Epoxi monomero baten egitura molekularra [95].





Polibenzoxazina erretxinarekin ekoiztutako konpositeekin alderatuz, epoxi erretxinadun konpositeek propietate mekaniko hobeak dituzte. Hori dela eta, epoxi erretxinadun konpositeak hegazkinen lehen mailako egituren erabiltzen dira [98]. Kasu honetan, M21 erretxina

6. Taulan behatu daitekeen konposatu kimikoaz osatuta dago. Karbono-zuntzari dagokionez, 5  $\mu$ m-ko diametroa duten Toray T800S karbono-zuntzez osatua dago lagin hau, norabide bakarreko banaketan (ikus 25. Irudia).




**25. Irudia.** Norabide bakarreko karbono-zuntzeko prepreg-aren itxura.

6. Taula. M21 erretxinaren osagai kimikoak [99].

Izena	Formula kimikoa	Egitura molekularra [100]
Formaldehido, oligomero erreakzioko produktuak 2,3-epoxipropano eta fenolarekin	$C_{10}H_{13}ClO_3$	 <p>The image shows three chemical structures: formaldehyde (HCHO), 2,3-epoxypropyl chloride (a three-membered epoxide ring with a -CH2CH2Cl group), and phenol (a benzene ring with an -OH group).</p>
4,4'-Metillenbis[N,N-bis(2,3-epoxipropil)anilina]	$C_{25}H_{30}N_2O_4$	 <p>The image shows the chemical structure of 4,4'-methylenebis[N,N-bis(2,3-epoxypropyl)aniline], which consists of two N,N-bis(2,3-epoxypropyl)aniline units connected at their para positions by a methylene (-CH2-) bridge.</p>
DAPSONA	$C_{12}H_{12}N_2O_2S$	 <p>The image shows the chemical structure of Dapsone (4,4'-diaminodiphenyl sulfone), which consists of two benzene rings connected at their para positions by a sulfone (-SO2-) bridge, with an amino group (-NH2) attached to each ring.</p>
p-(2,3-epoxipropoxi)-N,N-bis(2,3-epoxipropil)anilina	$C_{15}H_{19}NO_4$	 <p>The image shows the chemical structure of p-(2,3-epoxypropoxy)-N,N-bis(2,3-epoxypropyl)aniline, which consists of an N,N-bis(2,3-epoxypropyl)aniline unit with a 2,3-epoxypropoxy group (-OCH2CH2CH2-) attached to its para position.</p>

26. Irudian ageri den bezala jaso da hondakina, hau da, prepreg-biribilki moduan. Biribilki hau hegazkin-egitura egiteko erabiltzen den ATL makina automatizatueta erabiltzen da. Epoxi prepreg-a (% 69,7, masaren %) eta silikonadun papera estalki (% 30,3, masaren %) moduan duela.



**26. Irudia.** Saiakuntzetan erabiltzeko epoxi prepreg-biribilki hondakina eta silikonadun papera erakutsiz.

Pirolisi-erreaktorean sartzeko, 1125 mm x 50 mm-ko tirak ebaki dira, ahalik eta karbono-zuntz luzeenak berreskuratzeko asmoz (erreparatu 27. Irudia).



**27. Irudia.** Prepreg-hondakina erreaktorera sartu aurretik.

Karbono-zuntzaren propietateei dagokionez, 7. Taulan laburbiltzen dira propietate nagusiak.

**7. Taula.** T800S karbono-zuntzaren propietate nagusiak.

Zuntza	Trakzio-erresistentzia [MPa]	Young Modulua [GPa]	Luzapena [%]	Dentsitatea [g cm <sup>-3</sup> ]
T800S	5880	294	2,0	1,80

### 3.1.3 CFRP ondua

Lagin hau, aurreko biak ez bezala, karbono-zuntzeko material konposatu ondua da. 28. Irudian erreparatu daiteke haren itxura.



28. Irudia. Karbono-zuntzeko material konposatu onduaren itxura.

Mostoleseko *Universidad Rey Juan Carlos* unibertsitateko *Matematika Aplikatua, Materialen Zientzia eta Ingeniaritza eta Teknologia Elektronikoa* Sailean eskuratu dira hura ekoizteko materialak, hala nola, *AS4C 3K 5 Harness* itxurako karbono-zuntz ehuna, epoxi motako erretxina lortzeko erabilitako *Araldite LY 556* aitzindaria, ontze-prozesua egikaritu dadin beharrezkoa den *XB 3473* gogortzailea eta ekoizpen-prozesuan nahitaezkoak diren eta 3.6. puntuan zehatz-mehatz azalduko diren hainbat material eta tresna.

*Araldite LY 556* aitzindaria eta *XB 3473* gogortzailearen hornitzaile den *Huntsman*-ek eskainitako datuak ageri dira 8. Taulan. Ikusi daitekeenez, aitzindariak diglizidil eter bisfenol A (DGBA) molekulan oinarritutako formulazioa du.

8. Taula. Epoxi erretxinan erabilitako osagaien propietateak *Huntsman*-en arabera.


Osagaia	Izaera	Biskositatea (25 °C) [mPa s]	Dentsitatea [g cm <sup>-3</sup> ]
<i>Araldite</i> ® <i>LY 556</i>	Bisfenol A	10000-12000	1,15-1,2
<i>Araldite</i> ® <i>XB 3473</i>	Amina aromatikoa	95-145	0,99-1,02

Aitzindaria eta gogortzailea nahastuz lortutako erretxina giro tenperaturan biskositate baxukoa denez, egokia da material-konposatuen infusio bidezko fabrikaziorako, esaterako hutsarekin lagundutako erretxina-transferentzia bidezko moldaketarako (*VARTM* teknologia, 3.6 puntuan azaldua). Honez gain, *LY556/XB 3473* sistema industrian maiz erabiltzen den formulazioa da, egitura-funtzioa beteko duten material konposatuak ekoizteko. Industria desberdinen artean, industria aeronautikoan baliatzen da gehien bat. Hori dela eta, 9. Taulan ageri diren gomendioak eta datuak eskaintzen ditu hornitzaileak.

9. Taula. LY556/XB 3473 sistema erabiltzeko Huntsman-ak eskaintako gomendioak eta datuak.

Masa erlazioa (LY556/XB 3473)	Dentsitatea [g cm <sup>-3</sup> ]	Biskositatea (25 °C) [mPa s]	Gel denbora 140°C-an [min]
100/23	1,12-1,16	6000	35-43

Honez gain, 29. Irudian eta 30. Irudian ageri dira erretxinaren eta gogortzailearen etiketak, hurrenez hurren.



29. Irudia. Araldite LY556 aitzindariaren etiketa.




30. Irudia. XB 3473 gogortzailearen etiketa.

AS4C 3K 5 Harness itxurako karbono-zuntz ehunari dagokionez, Hexcel konpainiak hornitutako 0/90 motako ehuna da. 31. Irudian ageri da beroren itxura.



Karbono-zuntzaren propietateei dagokionez, 10. Taulan laburbiltzen dira propietate nagusienak.



**31. Irudia.** Karbono-zuntzeko material-konposatuaren fabrikazioan erabilitako *5 Harness AS4C 3K* karbono-zuntz ehunaren itxura.

**10. Taula.** AS4C 3K karbono-zuntzaren propietate nagusiak.


Zuntza	Trakzio-erresistentzia [MPa]	Young Modulua [GPa]	Luzapena [%]	Dentsitatea [g cm <sup>-3</sup> ]
AS4C 3K	4385	231	1,8	1,78

### 3.2 Saiakuntzak

Ikerkuntzan zehar egindako saiakuntzak, Bilboko Ingeniaritza Eskolan, Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumen Ingeniaritza Saileko Pirolisi eta Gasifikazio taldeak daukan planta pilotuan gauzatu dira. Pirolisi eta Gasifikazio taldea, *Sustainable Process Engineering (SuPrEn)* ikerketa taldeko partaide da. Karbono-zuntza birziklatzeko beharrezkoak diren bi prozesuak, hau da, pirolisia eta oxidazioa, jarraian azalduko den planta pilotuan burutu dira.

#### 3.2.1 Pirolisia

Pirolisi-saiakuntzak gauzatzeko erabili den planta pilotuaren eskema 32. Irudian ageri da. Ikusi daitekeenez, seriean konektatutako bi errektorez eta lurrunen kondentsaziorako eta likido-gas banaketarako sistemaz osaturik dagoen laborategi eskalako planta pilotu bat da. Planta pilotuaren fluxu diagramaz gain 33. Irudian pirolisi-planta pilotuaren argazkia ere ageri da.




1. Emari-neurgailua	11. Giro-tenperaturako kondentsadorea
2. Tratamendu termikoen errektorea (TTE)	12. Hozte-sistemadun 1.kondentsadorea
3. TTEaren labea	13. Hozte-sistemadun 2.kondentsadorea
4. TTEaren labearen termoparea	14. Ikatz-aktibatudun dorrea
5. TTEaren termoparea	15. T balbula
6. Hodi-erreaktore	16. Gas-poltsa
7. Hodi-erreaktorearen labea	17. Gas-poltsa
8. Hodi-erreaktorearen 1.termoparea	18. Hodi-erreaktorearen labearen kontrolagailua
9. Hodi-erreaktorearen 2.termoparea	19. TTEaren labearen kontrolagailua
10. Katalizatzailea	20. Ordenagailua

32. Irudia. Pirolisi-planta pilotuaren fluxu-diagrama.



**33. Irudia.** Pirolisi-planta pilotuaren argazkia.

Tratamendu termikoen errektorea (2), 3,5 L-ko bolumen erabilgarria daukan 316 kodedun altzairu herdoilgaitzezko tanke-itxurako errektorea da, non ohiko saiakuntza batean, 100 g lagin sartzen baitira. Errektorea inguratzen duen labe elektrikoari (3) esker, erradialki berotzen da lagina. Temperatura momentu oro kontrolpean izateko errektorearen erdigunean kokatzen den termoparea (5) erabiltzen da. Egin nahi den prozesuaren arabera, elikadura-gas anitz erabili daitezke, nitrogenoa edota airea esaterako. Hori dela eta, konposite-laginen birziklapenerako beharrezkoak diren bi prozesuak, pirolisia eta oxidazioa, hain zuzen ere, errektore honen baitan gauzatzen dira bata bestearen atzetik. Tratatu beharreko lagina, elikadura-gasarekiko elkarzut kokatzen da. Gasa errektore-hondotik sartu eta plater-banagailuaren laguntzaz errektorearen sekzio guztian homogeneoki banatzen da. 34. Irudian ageri den ebaketa-eskeman ikusi daiteke tratamendu termikoen errektorearen itxura barrutik.




**34. Irudia.** Tratamendu termikoen errektorearen ebaketa-eskema.

Saiakuntza hasten denean, material konposatuaren pirolisia gertatzen da, hau da erretxinaren deskonposaketa termikoa, errektorea 500 °C arte berotzearekin bat (N<sub>2</sub>-ko atmosferan, oro har). Temperaturaren hautaketan prepreg-ekin egindako hainbat ikerkuntza hartu da oinarri [44,46,101]. Tesian zehar bi beroketa-abiadura desberdin erabili dira. Alde batetik, 12 °C min<sup>-1</sup> eta bestetik, 3 °C min<sup>-1</sup>. Honez gain, 500 °C-ko isoterma bat ezartzearen eragina ere aztertu da ikerketan zehar. Errektoreak lan-erregimen erdi-jarraian egiten du lan, sortutako produktuak errektoretik irteten direlarik saiakuntzean zehar.

Honenbestez, tratamendu termikoen errektorea berotzen doan heinean konposite-erretxinaren deskonposaketatik eratorritako lurrinak bigarren errektorerara igarotzen dira, hodi-errektorerara (6), alegia. Hodi-errektorea, bertara iristen diren lurrunen tratamendu termikoa edota termo-katalitikoa mamitzeaz arduratzen da. 1 hazbeteko kanpo-diametroa eta 0,5 m-ko luzera duen 309 kodedun altzairu herdoilgaitzezko hodia da.

Hodi-errektorea, tratamendu termikoen errektorea bezala, modu erradialean berotzen da hura inguratzen duen labe elektrikoaren (7) bitartez. Saiakuntzetan 700 °C eta 900 °C arteko temperaturak erabili dira. Honez gain, kasu batzuetan, partikula tamaina edota konposizio kimiko desberdineko betegarriak erabili dira pirolisi-prozesutik eratorritako lurrunen tratamenduan zer eragin daukaten aztertzeko. Aurreikus daitekeena da, betegarriaren eraginez lurrunen hodi-errektoreko egoitza-denbora handitu egiten dela eta ondorioz, lurrunen tratamendu termiko edota termo-katalitikoa jasateko denbora handitu egiten dela. Beraz, lurrunen tratamendua helburu izanik, saiakuntza batzuetan, kasuan kasuko betegarriaren 150 mL erabili dira guztira.

35. Irudian ikusi daiteke betegarriaren kokapena hodi-errektorearen baitan. Bertan, erreparatu daitekeenez, kordierita zeramikazko hiru monolito erabili dira betegarria errektorearen barrenean eusteko.



35. Irudia. Hodi-erreaktorearen eskema.

Hodi-erreaktoretik irteten diren lurrinak, hiru kondentsadorez (11, 12, eta 13) osoturiko lurrunen kondentsaziorako eta likido-gas banaketarako gunera igarotzen dira. Hartara, lurrun-presio altua daukaten konposatuak gas egoeran iraungo dute eta bestelakoak kondentsatu egingo dira bidean aurkitzen diren kondentsadore desberdinetan. Gas egoeran darraiten konposatu horiek ikatz-aktibatudun dorretik (14) igarotzen dira, ur-lurrina, oraindik kondentsagarriak izan daitezkeen konposatuak eta partikula txikiak Tedlar plastikozko gas-poltsetara (16 eta 17) iristea ekiditeko asmoz. Ikerketa taldeak aldeztu aurretik frogatua du ikatz-aktibatuak ez duela nabarmen eraldatzen  $C_1$ - $C_6$  hidrokarburoen edukia gasetan. Era berean baieztatuta dauka gas-poltsetan kondentsagarriak izan daitezkeen konposatuak iragazten dituela ikatz-aktibatuak [102]. Aipaturako planta-pilotuaren atal guztiak silikonazko hodiez konektaturik daude (ikus 33. Irudia).

Orain arte berariaz aipatu ez den arren, pirolisi-prozesurako egokiak diren baldintza erreduzitaileak, hots, atmosfera inerteia, bermatzeko asmoz eta pirolisian sortutako lurrinak erreaktoretik kanporarazteko, orain arte ikerketa taldeak  $1 \text{ L min}^{-1} \text{ N}_2$  emaria elikatu du pirolisi-prozesuan zehar era jarraian. Hala ere, ikerketa lan honetan aztergai den birziklapen prozesuaren bideragarritasun ekonomikora hurbiltzeko asmoz,  $\text{N}_2$  elikadura barik lan egiteak dakartzan onurak eta ondorioak ere aztertu dira. Horretarako, hainbat saiakuntza egin dira parametro bakarra aldatuz: nitrogeno gas-elikatuaren presentzia.

Pirolisi-errendimenduak kalkulatzeko, pirolisi-saiakuntza bakoitzean sortutako solido eta likidoak pisatu egin dira eta masa-ehunekoa kalkulatu da tratamendu termikoen erreaktorean sartutako hasierako konposite lagina kantitatearekiko. Gas-errendimenduari dagokionez, hura, 100 arteko diferentziaz kalkulatu da, hau da, solido-errendimendua, likido errendimendua eta gas-errendimendua batuz, 100 eman behar du. Saiakuntzen errepikakortasuna bermatuz, ikasketa honetan aurkeztutako errendimenduak gutxienez bi saiakuntzen errendimenduen arteko batezbestekoa eginez kalkulatu dira. Errendimenduen batezbestekoa esanguratsua izan dadin, bi saiakuntzen artea ezin daiteke egon 3 puntu baino gehiagoko alderik.

Prozesu industrialetan ohikoa den legez, metaldun katalizatzaileak aktibatu egin behar dira saiakuntza aurretik. Aktibazio-prozesua hurrengoan datza: katalizatzailean dagoen metal oxidoa erreduzitu egiten da kimikoki, metal oxidoa egoera metalikora eraldatuz, hau da, egoera aktibatura. Horretarako, bolumen portzentajeen % 10 H<sub>2</sub>, % 10 N<sub>2</sub> eta gainerakoa Ar daukan gas nahastea hodi-erreaktoretik pasarazi da, katalizatzailearekin tenperatura batean eta denbora jakin bat kontaktuan egon dadin. Tenperatura eta erredukzio-denbora zehazteko, katalizatzaile bakoitzaren *Temperature Programmed Reduction* (TPR) analisia egin behar da, 3.5.5.4 atalean azalduko dena. Behin katalizatzailea aktibatuta, tratamendu termikoen erreaktorea eta hodi-erreaktorea lotu egin dira eta saiakuntza-tenperatura arte igo da hodi-erreaktoreko tenperatura, hau lortu bezain laster pirolisia martxan jartzeko.

### **3.2.1.1 Gauzatutako pirolisi-saiakuntzak**

Jarraian, pirolisi-saiakuntzei dagozkien parametroen laburpen bat taularatuko da. Saiakuntzetan erabilitako laginaren arabera, hiru taula sortu dira: 12. Taulan polibenzoxazina prepreg-ari dagokiona, 13. Taula epoxi prepreg-ari dagokiona eta 14. Taula CFRP onduari dagokiona. Epoxi onduen kasuan izan ezik, beste saiakuntza guztietan 100 g lagin erabili dira. 14. Taulan ageri da pirolisi-saiakuntzetan erabilitako CFRP onduen masa.

Katalizatzaile ezaugarriei dagokionez, epoxi prepreg-a tratatzerakoan erabilitako katalizatzaileen masa 3,0 g izan da; polibenzoxazina prepreg-arekin egindako saiakuntzetan, aldiz, 0,6 g erabili dira. Katalizatzaileen kokapenari dagokionez, polibenzoxazina prepreg-a tratatu den saiakuntzetan monolitoen inpregnazio bidea jarraitu da. Epoxi prepreg-a tratatu den saiakuntzetan aldiz, euskarri solido gabeko bidea jarraitu da. Saiakuntzetan erabilitako betegarriaren kantitatea kasu guztietan 150 mL

izan da. Bahetu gabeko betegarriaren partikula-tamaina banaketa 11. Taulan ikusi daiteke.

**11. Taula.** Bahetu gabeko betegarriaren partikula-tamaina banaketa.

<i>dp tartea (mm)</i>	<i>Banaketa (masaren %)</i>
0,2-0,5	0,03
0,5-1,0	0,09
1,0-1,5	44,01
1,5-2,0	48,61
2,0-3,2	7,26

1,5-3,2 mm tarteko partikula-tamaina erabili den saiakuntzetan, 1,5-2,0 mm arteko % 87 (masaren %) lagin eta 2,0-3,2 mm arteko % 13 (masaren %) lagin erabili dira.

12. Taula. Polibenzoxazina prepeg-a tratatu den pirolisi-saiakuntzetan erabilitako parametroen laburpena.

	1S	2S	3S	4S	5S	6S	7S	8S	9S
<b>Lagina</b>	Polibenzoxazina Prepeg-a								
<b>T</b> tratamendu termikoen erreaktorea (°C)	500								
<b>Beroketa-abiadura</b> (°C min <sup>-1</sup> )	12,2	3,0							
<b>T</b> hodi-erreaktorea (°C)	500			900					
<b>Hodi-erreaktorearen betegarria</b>	-	-	CSi			CSi	CSi	Kokea	Erregogorra
<b>dp</b> betegarri partikula-tamaina (mm)	-	-	Bahetu gabe			0,5-1	1,5-3,2		
<b>Katalizatzailea</b>	-	-	-	57-4Q	13Ni/HZSM-5	-	-	-	-
<b>Katalizatzaile-masa</b> (g)	-	-	-	0,6		-	-	-	-
<b>Elikadura-gasa</b>	N <sub>2</sub>								
<b>Gas-emaria</b> (mL min <sup>-1</sup> ; 25 °C, 1 atm)	1000								
<b>t</b> isoterma (min)	30								



13. Taula. Epoxi prepreg-a tratatu den pirolisi-saiakuntzetan erabilitako parametroen laburpena.

	10S	11S	12S	13S	14S	15S	18S	19S	20S	21S	22S	23S	24S	25S	
<b>Lagina</b>	Epoxi Prepreg-a														
<b>T<sub>hodi-erreaktoea</sub></b> (°C)	900					700					800		-	-	
<b>Hodi-erreaktoearen</b> <b>betegarria</b>	CSi	Erregogorra											-	-	
<b>dp<sub>betegarri</sub></b> <b>partikula-tamaina</b> (mm)	0,5-1,0														
<b>Katalizatzailea</b>	-					-	HZSM-5	CRG-LH	1Pd10C30Ni/Olibino	CRG-LH	-	CRG-LH	-	-	
<b>Elikadura-gasa</b>	N <sub>2</sub>	N <sub>2</sub>	N <sub>2</sub>	N <sub>2</sub>	-	-	-	-	-	N <sub>2</sub>	-	-	-	-	
<b>Gas-emaria</b> (mL min <sup>-1</sup> ; 25 °C, 1 atm)	1000			1000 <sup>1</sup>	-	-	-	-	-	1000	-	-	-	1000 <sup>1</sup>	
<b>t<sub>isoterma</sub></b> (min)	30	30	-											-	-

<sup>1</sup>Hasierako 15 minutuetan soilik

14. Taula. CFRP ondua tratatu den pirolisi-saiakuntzetan erabilitako parametroen laburpena.

	26S	27S
<b>Lagina</b>	CFRP ondua	
<b>T</b> tratamendu termikoen erreaktorea (°C)	500	
<b>Beroketa-abiadura</b> (°C min <sup>-1</sup> )	3,0	
<b>T</b> hodi-erreaktorea (°C)	700	900
<b>Hodi-erreaktorearen betegarria</b>	Erregogorra	
<b>dp</b> betegarri partikula-tamaina (mm)	0,5-1,0	
<b>Katalizatzailea</b>	-	
<b>Elikadura-gasa</b>	-	
<b>Gas-emaria</b> (mL min <sup>-1</sup> ; 25 °C, 1 atm)	-	
<b>t</b> isoterma erretentzio-denbora (min)	-	
<b>Masa lagina</b> (g)	90,2	82,2

### 3.2.2 Oxidazioa

Orain arte esan bezala, pirolisi ostean solidoan geratzen diren erretxina eta txar arrastoak kentzeko asmoz, oxidazio kontrolatua deritzon tratamendua egin behar zaio solido pirolisatuari.

Saiakuntzen Diseinuaren teoria praktikan jartzeko asmoz eta *Surface Response* metodologia jarraituz bost saiakuntza egin dira tenperatura eta denbora aldatuz pirolisi ostean karbono-zuntz garbiak berreskuratzeko egin beharreko oxidazio kontrolatua optimizatzeko. Era honetan, prozesuaren kostu txikiena eta errendimendu handiena lortzeko beharrezko tenperatura eta denbora lortu dira.

#### 3.2.2.1 Oxidazio-saiakuntzak

Oxidazio saiakuntzen aurreko pirolisi saiakuntzetan lagina  $3\text{ }^{\circ}\text{C min}^{-1}$ -ko beroketa-abiadura erabiliz  $500\text{ }^{\circ}\text{C}$ -a berotu da. Hodi-erreaktorean  $0,5\text{-}1\text{ mm}$  arteko partikula tamaina duen betegarri erregogorra erabili da eta  $700\text{ }^{\circ}\text{C}$  ezarri dira bertan.

15. Taulan pirolisi-saiakuntzen atzetik jarraian, hau da, tarteko erreaktorearen hozketa barik, egindako saiakuntzak ageri dira. Hauek dira hain zuzen ere, *Surface Response* metodologia aplikatzeko egindako saiakuntzak.

15. Taula. Pirolisi-saiakuntzen ostean, jarraian egindako oxidazio-saiakuntzetan erabilitako parametroen laburpena.

	26S	27S	28S	29S	30S
<b>Lagina</b>	Epoxi prepreg-a				
<b>T<sub>oxidazio</sub> (°C)</b>	500	600	500	600	550
<b>Beroketa-abiadura (°C.min<sup>-1</sup>)</b>	-	10	-	10	10
<b>Aire Emaria (L min<sup>-1</sup>) (25°C, 1 atm)</b>	2,0	7,2	7,2	2,0	4,0
<b>Oxidazio denbora (min)</b>	120	33	33	120	60
<b>T<sub>hodi-erreaktoea</sub> (°C)</b>	700				
<b>Hodi-erreaktorearen betegarria</b>	Erregogorra				
<b>dp<sub>betegarri</sub> partikula-tamaina (mm)</b>	0,5-1,0				

16. Taulan aldiz, pirolisi ostean prozesua hoztu eta gero egindako oxidazio saiakuntzen lan-baldintzak ageri dira.

**16. Taula.** Pirolisi-saiakuntza hoztu eta gero egindako oxidazio-saiakuntzetan erabilitako parametroen laburpena.

	<b>27S</b>	<b>28S</b>
<b>Lagina</b>	Epoxi ondua	
<b>T<sub>oxidazio</sub> (°C)</b>	500	
<b>Beroketa-abiadura (°C.min<sup>-1</sup>)</b>	25	25
<b>Aire Emaria (L min<sup>-1</sup>) (25°C, 1 atm)</b>	2	4
<b>Oxidazio denbora (min)</b>	120	30
<b>T<sub>hodi-erreaktoea</sub> (°C)</b>	700	
<b>Hodi-erreaktoearen betegarria</b>	Erregogorra	
<b>ρ<sub>betekin partikula-tamaina</sub> (mm)</b>	0,5-1,0	
<b>Masa lagina (g)</b>	65,5	62,4

### 3.3 Katalizatzaileak

Pirolisi lurrunen tratamendurako hainbat katalizatzaile erabili dira tesi honetan, hala nola, *Katalco Johnson Matthey* konpainiaren bi nikeldun katalizatzaile komertzial, *Zeolyst International*-ek hornitutako zeoliten familiako katalizatzaile komertzial bat, zeolita komertzial honi nikela gehitzerakoan lortutako katalizatzailea eta ikerketa taldearen laborategian ekoiztutako katalizatzaile bat. Jarraian, zehatz-mehatz aurkeztuko dira arestian aipatutako katalizatzaileak.


#### 3.3.1 Zeolita komertziala

*Zeolyst International* konpainiak hornitutako ZSM-5 zeolita erabili da, zehazki CBV 5524G produktua, zeolita izanik, pirolisi-lurrunen krakeorako aproposa izan daitekeela jakina baita. Gainazal eta azidotasun ezaugarriak egonkortze aldera, katalizatzailea 550 °C-an 3 orduz kiskaltzen eduki da laborategiko mufla batean. Izan ere, ZSM-5-aren azidotasuna zehaztuko duen konposatua era erreduzitan aurkitzen da kiskaldu aurreko katalizatzailean ( $\text{NH}_4^+$ ) eta hura oxidatzerakoan,  $\text{NH}_3$ -a lurrundu eta  $\text{H}^+$  geratzen da,  $\text{NH}_4\text{ZSM-5}$ ,  $\text{HZSM-5}$  bihurtuz. 17. Taulan ZSM-5-aren propietateak ageri dira.

17. Taula. ZSM-5 (CBV 5524G) komertzialaren propietateak.

Zeolita	$\text{SiO}_2/\text{Al}_2\text{O}_3$ (mol ratioa)	Gainazal azalera ( $\text{m}^2 \text{g}^{-1}$ )	Batezbesteko partikula-tamaina ( $\mu\text{m}$ )	1000 °C-an galdutako pisua (LOI, masaren %)
ZSM-5 (CBV 5524G)	57.3	449	4,4	7,9

Honez gain,  $\text{HZSM-5}$ -a saiakuntzan erabili aurretik, prozesuko lan-tenperaturan lau orduz eduki da katalizatzailea muflan, prozesuan zehar aldaketa morfologikorik ez jasateko. Erreaktorean sartu aurretik daukan itxura ikusi daiteke 36. Irudian.



36. Irudia. HZSM-5-aren itxura errektorean sartu aurretik.

### 3.3.2 Nikeldun katalizatzaile komertzialak

*Katalco Johnson Matthey* konpainiaren bitartez eskuratutako bi katalizatzaile erabili dira ikerkuntza honetan: 57-4Q eta CRG-LH. 57-4Q katalizatzailea, gas naturalaren lurrun-erreformaturako erabiltzen da industria mailan. CRG-LH-a aldiz, *pre-reforming*-ean erabiltzen da hidrogeno eta amoniako ekoizpen-prozesuetan lurrun-erreformatuaren aurretik [103]. Katalizatzaile biek  $\text{CaO}/\text{Al}_2\text{O}_3$  daukate euskarri gisa, baita erreformaturako nahitaezkoa den nikela ere. 18. Taulan ikusi daitezke 57-4Q eta CRG-LH katalizatzaile komertzialen ezaugarriak.

18. Taula. *Katalco Johnson Matthey* konpainiaren 57-4Q eta CRG-LH katalizatzaile komertzialen ezaugarriak.

Katalizatzailea	NiO (masaren %)	SiO <sub>2</sub> (masaren %)	Cr <sub>2</sub> O <sub>3</sub> (masaren %)
57-4Q	16	0,15	-
CRG-LH	50	4	1,5

### 3.3.3 Nikela gehitutako zeolita komertziala

*Zeolyst International* konpainiak hornitutako ZSM-5 zeolitari ( $\text{H}^+$  eran) Ni gehitu zaio pirolisi-lurrunen krakeoa ez ezik, erreformatua ere sustatzeko.

Ni-metalaren gehipena lortzeko hurrengo pausuak jarraitu dira. Hasteko, katalizatzailearen euskarria den HZSM-5 hautsarekin nahaste urtsua prestatu da, 10 mL ur distilatu zeolita gramoko, hain zuzen ere. Nahaste hau nikelaren aitzindari den  $\text{Ni}(\text{NO}_3)_2 \cdot 6\text{H}_2\text{O}$  (% 99,99; *Sigma Aldrich*) gatza disolbatzeko erabili da. Aldez aurretik, disolbatu beharreko gatz-masa kalkulatu da, azkenean nikelaren balio nominala % 13 Ni (masaren %) izan dadin. Ondoren, disoluzio guztia *Heidolph Laborota 4000* lurrungailu birakarian 45 °C-an eta hutsean mantendu da lehortu arte; ondoren, labean utzi da 110 °C-an gau osoz. Azkenik, katalizatzailea 800 °C-an kiskali da bi orduz mufla-labean. Era honetan hauts itxurako nikeldun zeolita komertziala lortu da.

### 3.3.4 Laborategian ekoiztutako 1Pd10Co30Ni/Olibinoa

Olibino minerala euskarri duen katalizatzailea prestatu da. Olibino minerala *Ilarduya y Cía* konpainiak hornitutako magnesio eta burdina duen nesosilikatoa da, hain zuzen ere, % 48 MgO, % 41 SiO<sub>2</sub> eta % 8 Fe<sub>2</sub>O<sub>3</sub>-z (masaren %) osaturik dagoena. Katalizatzailea lortzeko inpregnazio hezea deritzon metodoa erabili da. Inpregnazio prozesua hasi aurretik, euskarria 700 °C-ra kiskaldu da 4 orduz mufla-labeen, saiakuntzan zehar aldaketa morfologikoak ekiditeko.

Prestatu den katalizatzailearen konposizioa hurrengoa da: % 30 Ni, % 10 Co eta 1 % Pd (masaren %). Erabilitako aitzindari metalikoak Ni(NO<sub>3</sub>)<sub>2</sub>·6H<sub>2</sub>O (% 99,99; *Sigma-Aldrich*), Co(Cl)<sub>2</sub>·6H<sub>2</sub>O (% 98; *Sigma-Aldrich*) eta Pd(NO<sub>3</sub>)<sub>2</sub>·2H<sub>2</sub>O (% 40 Pd, *Sigma-Aldrich*) izan dira. Aipatutako katalizatzaile-konposizioa lortze aldera, euskarri eta aitzindari metalikoen kantitate egokiak nahastu dira, 10 mL ur distilatutan euskarri gramoko. Gau osoan nahasten utzi ostean, lurrungailu birakarian 45 °C-an eta hutsean mantenduz, ura kendu zaio. Ondoren, labean sartu da 110 °C-an gau osoz, guztiz lehortuta dagoela ziurtatzeko. Amaitzeko, katalizatzailea aire atmosferikoaren eraginpean 4 orduz kiskaltzen eduki da 700 °C-an, 3 °C min<sup>-1</sup> beroketa-abiadura erabiliz.

### 3.3.5 Katalizatzailearen kokapena

Pirolisi-saiakuntzetan erabilitako katalizatzailea pirolisi-lurrunarekin egon da soilik kontaktuan. Hartara, katalizatzaileak pirolisi-likido eta gasetan izan du eragina eta ez solidoaren pirolisian. Honetarako, katalizatzailea pirolisi-erreaktorea ez den eta honekin seriean dagoen hodi-erreaktorean kokatu da. Ikerkuntza-lanean zehar bi era desberdinetara kokatu da katalizatzailea hodi-erreaktorearen baitan: monolitoetan inpregnatuta eta ohantze finko batean sakabanatuta.

#### 3.3.5.1 Monolitoen inpregnazioa

Monolitoa, % 13,8 MgO, % 30,8 Al<sub>2</sub>O<sub>3</sub> eta % 51,4 SiO<sub>2</sub>-z (guztiak masa-ehunekoan) osaturik dagoen euskarri katalitiko da. Monolito hauek erraz koka daitezke hodi-erreaktorearen baitan hazbete bateko diametroko (hodi-erreaktorearen barne-diametroa) eta 0,02 m-ko altuerako zilindroetan ebakiz gero jatorrizko monolitoa. 37. Irudian behatu daiteke kordierita-monolitoaren itxura behin tamaina egokituta.



**37. Irudia.** Kordierita zeramikazko monolitoaren itxura, hodi-erreaktorean sartzeko neurrira moztuta.

Ikerkuntza-taldearen baitan egindako Aitziber Adradosen tesian oinarrituz [51], 0,6 g katalizatzaile inpregnatu da monolitoan, *Incipient Wetness impregnation* (IWI) metodoa jarraituz [104]. Inpregnazioarako katalizatzaile-hautsa etanolarekin nahasten da katalizatzaile/etanol pisu erlazioa 0,2 dela bermatuz. Ostean, kordierita-monolitoa prestatutako disoluzioan murgilarazten da, jarraian 100 °C-an lehortarazteko. Prozesu hau behin eta berriz errepikatu behar da katalizatzailearen pisua nahi den hori izan arte ( $\approx 0,6$  g). Behar adina katalizatzaile gehitutakoan, katalizatzaile-dun monolitoa 2 orduz 800 °C-an eduki da kiskaltzen. Ikerkuntza-lan honetan bi katalizatzaile frogatu dira monolitoetan inpregnatuta. Alde batetik, 3.3.2 puntuan aurkeztu den 57-4Q katalizatzailea eta beste alde batetik, 3.3.3 puntuan aipatu den nikeldun zeolita komertziala (13Ni/HZSM-5).

### 3.3.5.2 Ohantze finkoa

3.3.1 puntuan aurkeztutako HZSM-5 zeolita komertziala, 3.3.2 atalean erakutsitako CRG-LH nikeldun katalizatzaile komertziala eta 3.3.4 puntuan azaldutako laborategian ekoiztutako 1Pd10Co30Ni/Olibino katalizatzaileak ohantze finkoan kokatu dira hodi-erreaktorean. Aipatutako 3 katalizatzaileen partikula-tamaina ( $d_p$ ) 0,42-0,5 mm artekoa izan da hodi-erreaktorearen barru-diametroaren eta  $d_p$ -ren arteko erlazioa 10 baino handiagoa izan dadin eta era horretan, erreaktiboen horma ondoko bide-erreen sorrera ekiditeko [105].

$0,42 < d_p < 0,50$  mm lortzeko, katalizatzailearen arabera teknika bat edo beste erabili da. HZSM-5-aren kasuan, hauts egoeratik abiatuz, *Specac* prentsa-hidraulikoaren bitartez katalizatzaile-pastillak ekoiztu dira, ostean motrailuaren laguntzaz txikitu eta 0,42 eta 0,50 zulo-tamainako baheetatik igaroarazteko. CRG-LH katalizatzaileari dagokionez, 2 mm diametroko eta 5 mm luzerako zilindro itxuran hornitzen da. Hori dela eta, motrailuan txikitu eta 0,42 eta 0,50 zulo-tamainako baheetatik pasaraziz lortu da arestian aipatutako partikula-tamaina zehatza. Behin katalizatzaile-tamaina egokia lortuta, saiakuntzan zehar jasan beharreko tenperatura ezarri zaio katalizatzaileari,





mufla-labeen, tenperaturak eragindako aldaketa morfologikorik gerta ez dadin saiakuntzan.

38. Irudian ageri da hodi-erreaktorearen baitako katalizatzailearen kokapena. Erreparatu daitekeenez, katalizatzailea partikula-tamaina berdineko CSi-arekin nahastuz kokatzen da hodi-erreaktorearen baitako bero-dispersioa hobetzeko asmoz. Ohantze finkoa prestatzeko esperimentu bakoitzean erabilitako material ezberdinen kantitatea laburbiltzeko xedez 19. Taula eraiki da. Betegarriaren izaerari dagokionez, 3.4 atalean azalduko dira zer nolako betegarriak erabili diren saiakuntzetan.

**19. Taula.** Hodi-erreaktorearen baitako material-kantitatearen zehaztapena.

Izena	Betegarría I	CSi I	Katalizatzailea	CSi II	CSi III	Betegarría II
Masa (g)	115,4	10,0	3,0	15,0	8,86	74,9





**38. Irudia.** Hodi-erreaktorearen baitako katalizatzailearen kokapena.

### 3.4 Betegarriak

Ikerketa lanean 20. Taulan aurkeztu diren hainbat betegarri erabili dira, hala nola, *Navarro SIC S.A.*-k hornitutako silizio karburoa (CSi), *Befesa Steel R&D S.L.*-ren baitako *Befesa Zinc Aser S.A.*-k bidalitako koke metalurgikoa eta *Beroa Technology Group*-k eskainitako material erregogorra (erregogorren ekoizpenean sortutako adreilu hondatuak). Ikusi daitekeenez, partikula-tamaina desberdinak erabili dira, hain zuzen ere, 0,5-1 mm arteko eta 1,5-3,2 mm arteko partikula-tamaina. Aipatutako partikula-tamainak lortzeko 0,5, 1,0, 1,5 eta 3,2 zulo-tamaina duten baheak erabili dira.

**20. Taula.** Ikerketa lanean erabili diren betegarrien partikula-tamaina.

Izena	$d_p$ (mm)
CSi	1,5-3,2
CSi	0,5-1,0
Koke metalurgikoa	1,5-3,2
Material erregogorra	1,5-3,2
Material erregogorra	0,5-1,0

Silizio karburoa eroankortasun termiko oneko material erregogorra eta oso egonkorra da ikerketa lan honetan erabiltzen diren baldintzetan. Atmosfera inertean egonkorra da 2000 °C baino tenperatura altuagoetan. Oxigeno, karbono dioxidoa eta ur lurrunaren presentzia aldiz, kimikoki eraldatzen hasten da modu nabarian 1000 °C-tik gorako tenperaturetan [106–108]. Prozesu kimikoak frogatzeko laborategi mailan izaten

diren erreaktoreetan betekin bezala erabiltzen da sarri, jariakinaren erreaktore barruko dinamika eta beroaren garraioa hobetzen baititu [109–111].

Beste alde batetik, *Beroa Technology Group*-k eskainitako alumina kantitate altuko material hondakin erregogorrek honako konposizioa du masa-ehunekoan: % 50-65  $\text{Al}_2\text{O}_3$ , % 30-40  $\text{SiO}_2$ , % 1-2  $\text{Fe}_2\text{O}_3$  eta % 0,5-1,5  $\text{Na}_2\text{O}+\text{K}_2\text{O}$ . Jatorriz, adreilu formako itxura izan du. Hortaz, 0,5-1,0 mm eta 1,5-3,2 mm-ko partikula tamainak lortzeko txikitu eta bahetu egin behar izan da. Erregogortasun altuko materiala da hau ere (*Segeer* konoen taulan 37. zenbakia). Hori dela eta, CSi-ak egindako eragin baliokidea espero da baina kostu txikiagoaren ordainetan, material merkeagoa baita. Izan ere, kasu honetan, adreilu-hondakinak dira, hortaz, kostu ekonomiko gutxikoak edo doakoak. Gainera, emaitzetan aztertzen den eta prozesurako onuragarria izango litzatekeen eragin katalitikoa sor lezake material honen baitan dauden metal alkalino oxidoen eta burdin oxidoen presentziak.

Azkenik, *Befesa Zinc Aser S.A.*-k bidalitako materia lurrunkor gutxiko koke metalurgikoa erabili da betekin bezala. Materiala brikete forman jaso da. Ondorioz, txikitu egin behar izan da 1,5-3,2 mm tarteko partikula tamaina lortzeko. Ikatz izaerako material bat erabiltzearen arrazoia, CFRP-aren deskonposizioan sortzen diren substantziekin kontaktuan sor dezakeen eragin katalitikoa behatzea da. Izan ere, ezaguna da ikatz izaerako materialak bio-olioen tratamendurako eta mundrunen gasifikaziorako luzaroan frogatuak izan direla [112,113]. Kasu honetan hain zuzen ere, koke metalurgikoa aukeratu da materia lurrunkor gutxiko materiala delako eta ondorioz tratamenduaren tenperaturan material egonkor nahikoa delako. Ikertutako prozesuan portaera ona frogatuz gero, prezio baxuagoko biomasa hondakinetatik erdietsitako *biochar* edo *charcoal*-ez ordezkatzeari posible litzateke [114–117].

### **3.5 Karakterizazioa eta teknika analitikoak**

Hasierako laginak, pirolisi prozesuan lortutako produktuak (solidoak, gasak eta likidoak) eta saiakuntzetan erabilitako katalizatzaileak, zinez ezaugarritu dira.

#### **3.5.1 Hasierako laginen ezaugarritzea**

Hasierako laginaren ezaugarritzea errazteko asmoz, 2 x 2 mm tamainako zatitxoak moztu dira guraizeen laguntzaz.

##### **3.5.1.1 Analisi elementala (C, H, N, S, Cl)**

Analisi elementala, lagin baten karbono (C), hidrogeno (H), nitrogeno (N) eta sulfre (S) kantitatea neurtzeko erabiltzen den teknika da. Kasu honetan, C, H, N eta S elementuen masa-ehunekoak, ikatza eta karbono kantitate altua daukaten laginentzat egokia den ASTM D5373 jarraituz kalkulatu dira LECO TruSpec CHN eta S analizatzaile automatikoak erabiliz.

CHN analisiari dagokionez, hura 950 °C-an eta oxigeno puruaren eraginpean gauzatzen da, bat-bateko oxidazio osoa jasanez. Sortutako konposatu nagusiak (CO<sub>2</sub>, H<sub>2</sub>O eta NO<sub>x</sub>) gas eramaile baten laguntzaz (oxigenoa, CO<sub>2</sub> eta H<sub>2</sub>O-arentzat, eta helioa, NO<sub>x</sub>-arentzat) garraiatuak eta bide batez selektiboki banatuak dira berariazko zutabeetan. CO<sub>2</sub> eta H<sub>2</sub>O oxigeno puruaren balioa erreferentzia bezala erabiltzen duten berariazko detektagailu infragorriekin neurtzen dira. NO<sub>x</sub>-ak oster, erreduzituak izaten dira N<sub>2</sub>-an bilakatzen direlarik eta eroankortasun termikoa neurtzen duen detektagailu batetik igarotzen dira. Azken detektagailu honek helioaren eroankortasun termikoaren balioa hartzen du erreferentzia-baliotzat. Ohiko analisi batean, 0,08 g lagin sartzen da latorrizko kapsula batean eta analizatzailean kokatzen da, ondoren errauste-labera sartu dadin. Errekuntzaren profila geldoa izan da, laginaren errekuntza osoa ziurtatzeko asmoz.

Laginen S kantitatea neurtzeko LECO TruSpec S analizatzailea erabili da, erregaien oinarritzko analisia egiteko erabiltzen diren ASTM D1552 eta D4239 arau estandarretan oinarrituz. Kasu honetan, laginak zeramikazko arragoetan jarri dira, ostean 1350 °C-an dagoen labean oxigeno puruarekin erretzeko. Sulfre kantitatea, errekuntzan sortutako SO<sub>2</sub> kantitatearen neurketaren bitartez zehazten da. Neurketa hori, infragorri bidezko detektagailu baten bitartez egiten da. Analisisian erabilitako lagin kantitatea 0,1 g da.

CHNS-az gain, kloroa ere neurtu da hasierako laginetan. Laginen kloro-portzentajea kalkulatzeko, Ameriketako Estatu Batuetako Ingurumenaren Babeserako Agentziak (USEPA) diseinatutako hondakin solidoentzako, erabilitako olioentzako, erregaientzako eta antzeko materialentzako egokia den 5050 metodoa erabili da. Metodoa hurrengoan datza: lagina kalorimetro baten barrenean oxidatzen da oxigeno puruarekin (metodoaren 3.5.2.3 puntuan azaltzen da zehatz-mehatz) eta oxidazioan sortutako gasak kalorimetro barruan aldez aurretik jarritako disoluzio basiko batean disolbaratzen dira. Disolbatutako gasetako bat hidrogeno kloruroa (HCl) da, disolbatu ostean azido klorhidriko bihurtzen dena, baina azido sendo bat izanik, protoi (H<sup>+</sup>) eta klorurotan (Cl<sup>-</sup>) guztiz disoziatzen da. Lortutako disoluzio hau DIONEX ICS-3000 kromatografo ionikoan analizatu da, disoluzioan dagoen kloruroen kontzentrazioa ezagutzeko. Behin hura jakinda eta ponpa kalorimetrikoan sartutako laginaren masa ezagututa, laginaren kloro-portzentajea zehaztu da.

Hasierako laginaren kloro zehaztapenerako erabilitako masa 0,5 g izan da. Erabilitako disoluzio basikoaren molaritatea 0,25 M NaOH izan da, *J.T. Baker Company*-ren % 50 (masaren %) NaOH likidoa erabiliz prestatu dena. Kromatografo ionikoan erabilitako likido-eramailea ere *J.T. Baker*-en NaOH disoluzioarekin prestatu da. Kloroaren analisisan, DIONEX ICS-3000 kromatografo ionikoak erabilitako metodoaren parametroak 21. Taulan ikusi daitezke.

**21. Taula.** DIONEX ICS-3000 kromatografo ionikoan erabilitako parametroak.

Zutabea	Dionex IonPac AS19
Zutabe-zaindaria	Dionex IonPac AG19
Likido-Eramailea	NaOH (17,5 mM)
Emaria	1,0 mL min <sup>-1</sup>
Labe-tenperatura	30 °C
Gelaxka-tenperatura	35 °C
Injekzio-bolumena	25 µL
Supresorea	Dionex ASRS-ULTRA II 4-mm
Supresore-intentsitatea	44 mA
Data-biltze tasa	5 Hz s <sup>-1</sup>

Disoluzio basikoan lortutako kloruroa kuantifikatzeko, kromatografo ionikoa % 99,5 baino purutasun handiagoa duen sodio kloruro gatz batekin kalibratu da. Gainera, metodoaren eraginkortasuna (deskribatutako etapa analitiko guztiak gauzatu ostean, berreskuratutako kloro-portzentajea) zinez aztertu eta kuantifikatu da kloro kantitate

ezaguna duen olio-lagin estandar bati metodoa aplikatuz. %  $0,98 \pm 0,05$  (masa-ehunekoa) kloro-kantitatea duen IKA AOD 1.11 olio estandarra erabili da, alegia.

### 3.5.1.2 Analisi termograbitrikoa

Analisi termograbitriko dinamikoa eta bat-bateko analisisia egin zaie konposite-laginei.

#### 3.5.1.2.1 Analisi termograbitriko dinamikoa

Hasierako laginaren portaera termikoa ezagutzeko asmoz egin da analisis termograbitriko dinamikoa. Horretarako, Mettler Toledo TGA/SDTA851 termo-balantza (Columbus, OH, USA) erabili da. Termo-balantza labe baten barruan balantza daukan gailuari deritzo eta beraren funtzionamendua hurrengoan datza: lagina zeramikazko arrago batean sartzen da labera. Elikatutako gasaren arabera atmosfera desberdinak sor daitezke, atmosfera erreduzitzailea, oxidatzailea edo errektiboa, kasuan kasu. Era berean, beroketa-abiadura desberdinak programatu daitezke lortu nahi den temperatura erdiesteko. Analisis guztiaren zehar laginaren masaren erregistro jarraia egiten da eta neurketaren emaitza, temperatura, denbora eta atmosferaren funtzioan dagoen masa-aldaketa da. Analisis termograbitriko dinamikoa egin den termo-balantzan 10 mg-ko lagina sartu da eta 22. Taulan ageri diren baldintzak ezarri dira.

22. Taula. Analisis termograbitriko dinamikoaren lan-baldintzak.

Beroketa-abiadura [°C min <sup>-1</sup> ]	Temperatura [°C]	Atmosfera	Gas-emaria [mL min <sup>-1</sup> ]
10	1000	N <sub>2</sub>	50

Deskonposaketa-abiadura maximoko temperatura masa-galeraren lehen deribatuaren (DTG) bitartez zehaztu da.

#### 3.5.1.2.2 Bat-bateko analisisia

2 g arteko masa neurtzeko gai den LECO TGA-500 termo-balantza ibili da bat-bateko analisisia egiteko. Bat-bateko analisisaren bitartez, laginaren hezetasuna, materia lurrunkorra, errautsak eta karbono finkoa lortu daitezke. Parametro hauek, LECO TGA-500 termobalantza erabiliz kalkulatu dira ASTM D3173-87, ASTM D3175-89 eta ASTM D3174-97 metodo estandarretan oinarrituz, hurrenez hurren.

Hezetasuna, materia lurrunkorra eta errautsak era sekuentzialean eta automatikoan zehazten dira 23. Taulan aipatzen diren baldintzen eraginez sortutako masa galeraren menpe. Karbono finkoa aldiz, diferentziaz kalkulaten da, hau da, 100-

ri alde z aurretik zehaztutako hezetasun, materia lurrunkor eta errauts portzentajeak kenduz. LECO TGA-500 analizatzaileak masa-ehuneko moduan ematen ditu emaitzak.

**23. Taula.** Hezetasuna, materia lurrunkorra eta errautsak zehazteko bat-bateko analisiaren parametroak.

ASTM Metodo Estandarra	Parametroa	T (°C)	Denbora (min)	Atmosfera
D3173-87	Hezetasuna	106	Pisu konstantera arte	N <sub>2</sub>
D3175-89	Materia lurrunkorra	950	7	N <sub>2</sub>
D3174-97	Errautsak	750	Pisu konstantera arte	O <sub>2</sub>

### 3.5.1.3 Goi Bero Ahalmena (GBA)

Hasierako laginaren GBA, ASTM D3286 metodo estandarra erabiltzen duen LECO AC-500 kalorimetro automatikoa erabiliz zehaztu da. Analisi hau hurrengoan datza: 0,5 g lagin metalezko arrago batean sartzen da eta hura ponpa kalorimetrikoan (presio altua jasan dezakeen ontzi metalikoa) kokatzen da. Ostean, oxigeno purua elikatzen da ponpara. Laginaren errekuntzan kanporatzen den beroak, ponpa kalorimetrikoa inguratzen duen uraren tenperatura igotzen du eta tenperatura aldaketa hori, laginaren bero ahalmenarekiko proportzionala da. Kalorimetroak kalkulu matematikoa egiten du eta GBA-aren balio ematen du zuzenean.

### 3.5.1.4 Karbono-zuntz kantitatearen zehaztapena

Karbono-zuntz kantitatea masa-ehunekoan ezagutzeko, ASTM D3171-76 metodo estandarra: *Standard Test Methods for Fiber Content of resin-matrix composites by digestion* erabili da, erretxina-matrizedun karbono-zuntzdun konpositeen digestioa eginez lortzen dena.

Analisirako 0,3 g lagin berotu da % 98-ko purutasuna duen 0,25 mL H<sub>2</sub>SO<sub>4</sub>-an, disoluzioa beltz jarri arte. Ondoren, % 50-ko purutasuna daukan H<sub>2</sub>O<sub>2</sub> disoluzioa gehitu da tantaka-tantaka bureta baten laguntzaz disoluzioa garden bilakatu arte. Ostean, iragazketa baten bitartez karbono-zuntza disoluziotik bereizi da. Hasierako eta amaierako laginaren arteko masa diferentzia, hasierako laginaren erretxina kantitateari dagokio. Erretxinaren masa eta hasierako laginaren masa kontuan hartuta, hasierako karbono-zuntz kantitatea zehaztu da. Karbono-zuntza eta erretxinaren dentsitateak jakinda, laginaren osagai hauek bolumen-ehunekoan ere zenbatetsi daitezke.

### 3.5.1.5 Ekorketa bidezko mikroskopia elektronikoa

Ekorketa bidezko mikroskopia elektronikoa, ingeleseko sigletatik SEM (*Scanning Electron Microscopy*) bezala ezagutua, erabili da karbono-zuntzen

ezaugarritze morfologikoa egiteko. Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerketa Zerbitzu Orokorretako (SGIker) instalazioetan egin dira analisiak. Karakterizazioan zehar 20 kV-eko azelerazio-voltaia ezarri zaie laginei eta elektroien sekundarioen detektagailua erabili da batik bat.

100, 250, 1000 eta 2500 handipenetara aztertu dira laginak eta era honetan karbono-zuntzen luzetarako irudiak lortu dira, erretxina guztiz kendu denentz ikusteko eta hortaz, hasierako laginaren karbono-zuntz kantitatearen kalkularen fidagarritasuna handitzeko. Karbono-zuntza garbi dagoela ziurtatu ostean, karbono-zuntzen diametroa ere zenbatetsi da analisi honetan.

### **3.5.2 Pirolisi solidoen ezaugarritzea**

Saiakuntza bakoitzean lortutako solidoaren ezaugarritzea egin da jarraian azalduko diren ezaugarritze-teknikak baliatuz.

#### **3.5.2.1 Analisi elementala (C, H, N, S)**

Pirolisi-solidoen oinarriko analisia 3.5.1.1 puntuan azaldu den metodoa, analizatzaile eta prozedurarekin egin da. Desberdintasun bakarra erabilitako laginaren masa izan da. C, H eta N neurtzeko 0,06 g erabili dira analisi bakoitzean, hain zuzen ere. Sufre kantitatea zehazteko aldiz, 0,1 g erabili dira.

#### **3.5.2.2 Analisi termogravimetricoa**

Pirolisi-solidoen ere analisi termogravimetricoa den bat-bateko analisia egin zaie, laginek pirolisi ostean daukaten hezetasuna, materia lurrunkorra, errautsak eta karbono finkoa kalkulatzeko. Horretarako, 3.5.1.2.1 puntuan aipatutako gailua, hau da, LECO TGA-500 termobalantza, erabili da eta puntu horretan azalduko prozedura eta metodoa jarraitu dira. Kasu honetan ere, analisi bakoitzean 0,5 g erabili dira.

#### **3.5.2.3 Goi Bero Ahalmena (GBA)**

Solido pirolisatuari GBA analisia egin zaie 3.5.1.3 puntuan azalduko pausuak jarraituz. Kasu honetan ere 0,5 g solido-pirolisatu erabili da analisi bakoitzean.

### **3.5.3 Pirolisi-gasen ezaugarritzea**

Pirolisi prozesuan lortutako gasen ezaugarritzea, gasen konposizioa eta goi bero ahalmena zehaztean datza. Gasen konposizioa ezagutzeari dagokionez gasen kromatografia erabili da eta GBA-ri dagokionez, hura teorikoki kalkulatu da.



### 3.5.3.1 Gasen konposizio ezagupen prozesua

SID (Sugar Ionizazio Detektagailua), ingelesez FID izeneko, eta ETD (Eroankortasun Termiko Detektagailua), ingelesez TCD izeneko, detektagailudun gas kromatografoa (GK) erabili da gasen konposatuaren zehaztapenerako, AGILENT 7890A, hain zuzen ere.

SID detektagailuak hidrogeno eta aire bidez sortutako sugarrarekin, pirolisi gasean dauden konposatuak erretzen ditu. Hori dela eta, konposatu erregaiarentzako egokia dela esaten da, orokorrean, hidrokarburoak. ETD detektagailua aldiz, konposatuaren eroankortasun termikoa neurtzeaz arduratzen da. Hori dela eta, ETD detektagailua karbono dioxidoa (CO<sub>2</sub>), hidrogenoa (H<sub>2</sub>), oxigenoa (O<sub>2</sub>), nitrogenoa (N<sub>2</sub>), karbono monoxidoa (CO), etab., detektatzeko erabilgarria da. Bi detektagailu hauek, analisisian zehar gas eramailea analizatzen dute momentu oro, seinale konstante bat irudikatuz kromatograman. Pirolisi gaseko konposatua detektatzen duten bakoitzean, seinalea aldatu egiten da eta horren ondorioz, kromatograman altuera desberdineko eta erretentzio-denbora desberdineko tontorrak agertzen dira, pirolisi gaseko konposatuak detektatuz.

Pirolisi gasean lortzen diren konposatuaren bereizketarako, erabilitako kromatografoak bi zutabe desberdin ditu; lehenengo zutabea, HP-MOLESIEVE, bahe-molekular zutabea da. Bigarrena, HP-PLOT Q izeneko zutabea da. Bahe-molekularra, zutabe arruntak bereizgaitz dauzkan konposatuak bereizteaz arduratzen da. Konposatu hauek hurrengoak dira: H<sub>2</sub>, CO, N<sub>2</sub> eta O<sub>2</sub>, gas iraunkorrak izenekoak, alegia. 24. Taulan aztertu daitezke pirolisi gasen ezaugarritzean erabilitako gas kromatografoaren ezaugarriak eta kromatografoan erabilitako metodoaren baldintzak. Pirolisi-gaseko konposatuak identifikatzeaz gain kuantifikatzeko, Air Liquid konpainiak irmoz ekoiztutako hainbat gas-nahaste estandar erabili dira. 25. Taulan, 26. Taulan, 27. Taulan,

28. Taulan eta

29. Taulan ikusi daitezke erabilitako gas-nahaste hauen ezaugarriak.

**24. Taula.** GK-ETD/SID analisisian erabilitako metodoaren ezaugarriak.

Parametroak	Balioak
Zutabeak	HP-MOLESIEVE HP-PLOT Q

*Prozedura esperimentalak*

Gas-eramailea	He
Gas-eramailearen emaria	5 mL min <sup>-1</sup>
Hasierako Tenperatura/denbora	40 °C/ 9,5 min
Labearen programa	20 °C min <sup>-1</sup> 100 °C arte eta 2,5 min mantendu
	10 °C min <sup>-1</sup> 180 °C arte eta 0 min mantendu
	20 °C min <sup>-1</sup> 200 °C arte eta 4 min mantendu
Analisi-denbora	28 min
Injektore-tenperatura	150 °C
ETD detektagailu-tenperatura	250 °C
SID detektagailu-tenperatura	300 °C

**25. Taula.** Gas-nahaste estandarraren H<sub>2</sub> eta N<sub>2</sub> kontzentrazioak.

Konposatua	Kontzentrazioa (bol. %)
H <sub>2</sub>	10
N <sub>2</sub>	10
Ar	Gainontzekoa

**26. Taula.** Gas-nahaste estandarraren CO eta CO<sub>2</sub> kontzentrazioak.

Konposatua	Kontzentrazioa (bol. %)
CO	15
CO <sub>2</sub>	7
N <sub>2</sub>	Gainontzekoa

**27. Taula.** Alkanoen gas-nahaste estandarraren kontzentrazioak.

Konposatua	Kontzentrazioa (bol. %)
CH <sub>4</sub>	3
C <sub>2</sub> H <sub>6</sub>	2
C <sub>3</sub> H <sub>8</sub>	1
C <sub>4</sub> H <sub>10</sub>	1000 ppm
C <sub>5</sub> H <sub>12</sub>	1000 ppm
C <sub>6</sub> H <sub>14</sub>	1000 ppm
N <sub>2</sub>	Gainontzekoa

**28. Taula.** Alkenoen gas-nahaste estandarraren kontzentrazioak.

Konposatua	Kontzentrazioa (bol. %)
C <sub>2</sub> H <sub>6</sub>	1
C <sub>3</sub> H <sub>6</sub>	1
C <sub>4</sub> H <sub>8</sub>	1
C <sub>5</sub> H <sub>10</sub>	1
C <sub>6</sub> H <sub>12</sub>	1
N <sub>2</sub>	Gainontzekoa

**29. Taula.** H<sub>2</sub> eta CO<sub>2</sub> gas-nahastearen kontzentrazioak.

Konposatua	Kontzentrazioa (bol. %)
------------	-------------------------

H <sub>2</sub>	41,07
CO <sub>2</sub>	58,93

### 3.5.3.2 Gasen Goi Bero Ahalmenaren kalkulua (GBA)

Kromatografiaren bitartez zehaztutako gas konposizioan eta konposatu bakoitzak baldintza estandarretan (25 °C eta 1 bar) daukan GBAn oinarrituz kalkulatu da pirolisian lortutako gasaren GBA. Aipatutako konposatu bakoitzaren GBA 30. Taulan ikusi daiteke.

**30. Taula.** Pirolisi gasean agertutako konposatu bakoitzaren GBA baldintza estandarretan (MJ m<sup>-3</sup>) [118].

<b>Konposatua</b>	<b>GBA</b>
H <sub>2</sub>	11,69
CO	11,58
CH <sub>4</sub>	36,54
Etanoa	63,84
Propanoa	90,85
n-Butanoa	117,80
n-Pentanoa	144,71
n-Hexanoa	171,67
Ethenoa	57,74
Propenoa	84,24
1-Butenoa	111,26
1-Pentenoa	138,15
1-Hexenoa	161,01

### 3.5.4 Pirolisi-likidoen ezaugarritzea

Pirolisi-likidoetan bi fase bereizten dira maiz (fase organikoa eta fase urtsua). Bai fase organikoa, baita fase urtsua ere, bi ezaugarritze-teknika baliatuz aztertu dira: gas kromatografia masa espektrometro detektagailuduna (GK/ME) eta analisi elementala CHNS. Tesi honetan biltzen den lanean, lortutako likidoen kantitatea oso txikia izan da kasu anitzetan. Hori dela eta, bi teknikak erabiltzeko haina likido egon ezean, GK/ME teknikak izan du lehentasuna. Honez gain, kasu batzuetan fase bakarra lortu da, fase hau urtsua izanik. Bi fase erdietsi diren kasuetan, laginaren zentrifugazioaren bitartez bereizi dira bi faseak. Jarraian pausoz pauso azalduko dira aipatutako bi teknikak eta erabilitako zentrifugazio-baldintzak.

### 3.5.4.1 Zentrifugazioa

Pirolisian lortutako likidoak zentrifugatu bereiztu dira fase organikoa eta fase urtsua. *Alresa* konpainiako zentrifugatzailea erabili da. Likidoa zentrifugazio-hodietan sartu da eta 15 minutuz eduki da 2500 r.p.m-etan biraka. Ostean, Pasteur pipeten laguntzaz bi faseak berreskuratu dira.

### 3.5.4.2 Gas kromatografo-masa espektrometro (GK/ME) analisia

Bi faseak bereizita, fase bakoitzean agertutako konposatuak ezagutzeko asmoz, GK/ME analisia egin da. Bere izenean aurreikusi daitekeen bezala, gas kromatografoz (AGILENT 6890) eta masa-espektrometro detektagailuz (AGILENT 5973) hornitutako analizatzailea da.

Likidoak gailuan sartzeko, % 99,9-ko purutasuna duen tetrahidrofuranoa (THF) erabili da likidoen disolbatzaile gisa. Aukeratutako disolbatzaile hau, pirolisi-prozesuan sortutako likido-konposatuak guztiz disolbatzeko gai da eta era berean, sortutako konposatuekiko erretentzio-denbora desberdina duenez, ez ditu pirolisi-likidoko konposatuak ezkututzen. Erretentzio-denbora desberdina dela jakinik, konposatuen zehaztapen eta kuantifikazio kalitatea hobetzeko asmoz, detektagailua itzali egiten da THF-a detektagailutik igarotzen den denbora tartean. Lagin-disolbatzaile ratioa 1/100 eta 1/10 (masan) izan da fase organikoaren eta fase urtsuaren kasuan, hurrenez hurren.

Bi metodo erabili dira likido-laginak aztertzeko. Alde batetik, *Aquo-thf*, fase urtsuarentzat eta beste alde batetik, *Org-thf* fase organikoarentzat. *Aquo-thf* metodoa diseinatua izan da pisu molekular baxuko konposatuak antzemateko, hala nola, ura. *Org-thf* aldiz, egokiagoa da pisu molekular altuko konposatuak zehazteko. GK/ME analizatzailean ezarritako analisi-baldintzak 31. Taulan aztertu daitezke. Era berean, *Aquo-thf* eta *Org-thf* metodoen baldintzak

32. Taulan eta

33. Taulan aztertu daitezke, hurrenez hurren.

**31. Taula.** GK/ME analizatzailearen lan-baldintzak.

Parametroak	Balioak
Zutabeak	Agilent 123-3262
Gas-eramailea	He
Gas-eramailearen emaria	2,3 mL min <sup>-1</sup>
Injekzio-tenperatura	250 °C
Injekzio bolumena	0,5 µL (Split 75:1)

Detektagailu-tenperatura (Source/Quad)	230 °C/ 150 °C
Eskuratze modua	Scan

**32. Taula.** GK/ME analisisiko *Aquo-thf* metodoaren parametroak.

Parametroak	Balioak
Hasierako tenperatura / denbora	40 °C / 5 min
Labe-programa	8 °C min <sup>-1</sup> 150 °C arte eta 5 minutu mantendu 8 °C min <sup>-1</sup> 240 °C arte eta 4 minutu mantendu
Amaierako tenperatura / denbora	240 °C / 5 min
Analisi-denbora	39 min
Eskaneatze parametroak:	
Hasiera-denbora / masa altuena-masa baxuena	0 min / 10 - 80 a.m.u 10 min / 30 - 200 a.m.u

**33. Taula.** GK/ME analisisiko *Org-thf* metodoaren parametroak.

Parametroak	Balioak
Hasierako tenperatura / denbora	40 °C / 5 min
Labe-programa	8 °C min <sup>-1</sup> 150 °C arte eta 5 minutu mantendu 8 °C min <sup>-1</sup> 240 °C arte eta 10 minutu mantendu
Amaierako tenperatura/denbora	240 °C/ 10 min
Analisi-denbora	45 min
Eskaneatze parametroak:	
Hasiera-denbora/masa altuena-masa baxuena	0 min / 10 - 120 a.m.u 10 min / 50 - 350 a.m.u

### 3.5.4.3 Analisi elementala (C, H, N, S)

Pirolisi-saiakuntzetan lortutako likidoen analisi elementala 3.5.1.1. puntuan azaldutako ekipamenduarekin egin da. Erabilitako metodoari dagokionez, likidoen kasuan, errekuntzaren profil ertaina erabili da. Analisi hauetan erabilitako lagin kantitatea 0,05 g, likido urtsuen kasuan, eta 0,07 g, likido organikoen kasuan, izan da. Prozedurari dagokionez, lagina likidoa izanik, metalezko arragoa zuzenean ezarri beharrean, LECO-k hornitutako COM-AID izeneko hauts formako solido adsorbatzaile bat erabili da euskarri gisa, likidoa bertan adsorbatu dadin. Adsorbatzaile honek ez dauka inolako eraginik analisi elementalean lortutako emaitzetan.

### 3.5.5 Katalizatzaileen ezaugarritzea

#### 3.5.5.1 Analisi kimikoa

Analisi kimikoaren bitartez katalizatzailearen baitako Ni, Co eta Pd kantitateak zehaztu dira. Horretarako, plasma bidezko espektroskopia analisia (ingeleseko sigletatik

ICP-AES moduan ezagutua) erabili da, Perkin-Elmer Optima 2000 tresna erabiliz. Aldez aurretik, 50 mg katalizatzaile HF:HNO<sub>3</sub>:HCl=3:3:2 nahastean disolbatu da Milestone ETHOS 1 digestorearen laguntzaz. Digestioak 190 °C-an egin dira. Erabilitako azidoen purutasuna eta marka komertziala hurrengoak izan da: HF % 48, EMSURER, HNO<sub>3</sub> % 65, Panreac; HCl % 37, Panreac.

#### **3.5.5.2 N<sub>2</sub> bidezko adsortzio fisikoa**

N<sub>2</sub> bidezko fisisortzioaren (ingelesez, *N<sub>2</sub> physisorption*) bidez katalizatzailearen gainazal-propietateak ezagutu daitezke, hala nola, BET gainazal-azalera, poro-bolumena eta poroen batezbesteko diametroa. Horretarako, *Autosorb IC-TCD* tresna automatikoa erabili da.

N<sub>2</sub> adsortzio/desortzioarekin hasi aurretik laginak desgasifikatu egin dira 150 °C-an 12 orduz. Gainazal azalera espezifiko Brunauer-Emmett-Teller (BET) metodoa erabiliz kalkulatu da. Poroen bolumen totala eta poroen batezbesteko diametroa Barrett-Joyner-Halenda (BJH) metodoa jarraituz zenbatetsi dira, mikroporoen bolumena Dubinin-Radushkevich (DR) metodoaren arabera kalkulatu den bitartean.

#### **3.5.5.3 CO bidezko adsortzio kimikoa**

Gainazal aktiboa eta metalen sakabanaketa CO bidezko adsortzio kimikoaren bidez (ingelesez, *CO chemisorption*) zehaztu dira Micromeritics® AutoChem II tresnan. Laginak aldez aurretik erreduzitu dira, hauek 700 °C-an Micromeritics® AutoChem II tresnan sartuz % 5 H<sub>2</sub>-Ar (bolumenaren %) nahaste baten presentzian. Ostean, CO-kimisortzio ahalmena neurtu da 35 °C-an % 5 CO-He (bolumenaren %) nahastearen presentzian.

#### **3.5.5.4 H<sub>2</sub> bidezko tenperatura programatuko erredukzioa**

Temperatura programatuko erredukzioa izeneko analisia, ingeleseko sigletatik TPR (*Temperature-Programmed Reduction*) moduan ezagutua, aldez aurretik kiskalitako katalizatzaileen baitako espezie erreduzigarrien erredukzio-tenperatura eta denbora zehazteko erabili da. Analisi honetan kontsumitutako hidrogenoa neurtzen da. Normalean katalizatzaileen metalak oxido eran daude, beraz hidrogenoa duen atmosfera batekin kontaktuan jartzerakoan erreduzitu egiten dira egoera metalikora pasatuz. Horretarako, eroankortasun termiko-detektagailu batekin hornitutako Micromeritics® AutoChem II tresna erabili da. Analisia egin aurretik, baldintza normaletan % 5 H<sub>2</sub>/Ar

(bolumenaren %) nahastedun emari jarraia elikatu da 0,1 g katalizatzailetik 5 °C min<sup>-1</sup>-ko beroketa-abiaduraz giro tenperaturatik 950 °C arte berotu den bitartean.

### 3.5.5.5 NH<sub>3</sub> bidezko desortzio termiko programatua

NH<sub>3</sub>-aren desortzio termiko programatua egin da kiskalitako katalizatzaileen azidotasuna jakiteko (ingelesez *Thermal Programmed Desorption*, TPD). Micromeritics® AutoChem II ekipoa erabili da neurketak egiteko. Hasteko, laginak % 5 H<sub>2</sub>/Ar (bolumenaren %) nahastearekin erreduzitu dira 700 °C-an. 30 minutuz He-arekin egon ostean, 100 °C arte hoztu eta NH<sub>3</sub>-ren adsortzioa gauzatu da 30 minutuz. Ondoren, fisikoki adsorbitutako NH<sub>3</sub>, He baliatuz desorbitu da 150 °C-an eta kimikoki adsorbitutakoa 150 °C-tik 900 °C-ra 10 °C min<sup>-1</sup>-ko beroketa-abiadurarekin igonez batu da. Adsorbitutako amoniakoa desorbitzeko behar den tenperaturaren arabera azidotasunaren sendotasuna ezberdindu da. Modu honetan, hiru azidotasun-mota ezberdindu dira: ahula 250 °C-tik behera, ertaina 250 °C-tik 450 °C-ra eta sendoa 450 °C-tik 900 °C-ra. Behin ekipoa ematen duen seinalea kalibratuta, NH<sub>3</sub> kontzentrazioa lortzen da Ncm<sup>3</sup> min<sup>-1</sup> unitateetan. Ondoren, gas idealen ekuazioa erabilita eta analisisa egiterakoan erabilitako katalizatzaile masarekin zuzenduta, desorbitutako mmol NH<sub>3</sub> min<sup>-1</sup> g<sup>-1</sup> lortzen dira. Azkenik, nahi den denbora tartean integratuz, adsorbitutako mmol NH<sub>3</sub> g<sup>-1</sup> katalizatzaile lortzen dira.

### 3.5.5.6 X-izpien bidezko difrakzioa

X-izpien bidezko difrakzioaren bitartez, ingeleseko sigletatik XRD (*X Ray Diffraction*), katalizatzaileen fase kristalinoen determinazio kualitatibo eta kuantitatiboa egin da, konposatu kristalinoak identifikatuz. Erabilitako ekipoa Seifert XRD 3000P difraktometroa izan da, PWBragge-Brentano q/2q 2200 goniometro batekin, makurtutako grafito monokromatoarekin eta zirrikitu automatikoa, Cu K $\alpha$  erradiazioa erabiliz. Faseen identifikazioa Power Diffraction File (PDF-2,4) datu-basea erabiliz egin da, *International Centre for Diffraction Data* (ICCD). Fase kristalinoen batezbesteko partikula tamaina *Scherrer* ekuazioaren bidez egin da. Katalizatzaile guztiak, CRG-LH-a izan ezik, % 5 H<sub>2</sub>/Ar (bolumenean) nahastearekin erreduzitu dira 700 °C-an analisisa egin aurretik eta iso-oktanoan sartu dira gainazaleko metalen bir-oxidazioa ekiditeko.

### **3.5.6 Betegarrien ezaugarritzea**

Lurrunen tratamendurako hodi-erreaktorean erabilitako betegarrien ezaugarriak ezagutzeko helburu izanik, honako analisi-teknikak erabili dira.

N<sub>2</sub> bidezko adsortzio fisikoaren bitartez, testura propietateak (gainazal-azalera, poro-bolumena eta poroen batezbesteko diametroa) ikertu dira. Horretarako, *Autosorb IC-TCD* ekipoa erabili da. Aldez aurretik, laginak desgasifikatzen egon dira 12 orduz 300 °C-an. Gainazal-azalera Brunauer-Emmett-Teller (BET) metodoa erabiliz eta poro-banaketa Barrett-Joyner-Halenda (BJH) metodoa erabiliz zenbatetsi dira.

Material erregogorraren azidotasuna programatutako tenperaturapean gauzatutako amonikoaren desortzio teknika (*NH<sub>3</sub>-TPD*) erabiliz aztertu da, *Micromeritics® AutoChem II* izeneko ekipoarekin. Honez gain, material erregogorraren kasuan bere baitan izan ditzakeen metalen eta gerta dakiekeen erredukzio posiblea aztertu da erredukzio termiko programatua (*TPR*) eginez. Beste alde batetik, betegarri honen gainazalean katalitikoki aktibo egon daitezkeen metalen presentzia aztertu da CO bidezko adsortzio kimikoa erabiliz. Azken bi kasuetan ere *Micromeritics® AutoChem II* gailua erabili da.



### 3.6 Material konposatuaren fabrikazioa


Material-konposatuak hutsarekin lagundutako erretxina-tranferentzia bidezko moldaketaren bitartez, ingeleseko sigletatik *VARTM (Vacuum Assisted Resin Transfer Molding)* izenez ezagutzen den metodoaren bitartez, fabrikatu dira. Honako material hauek erabili dira. Alde batetik, 3.1.3 puntuan aurkeztutako karbono-zuntza, *LY556* aitzindaria eta *XB 3473* gogortzailea. Beste alde batetik, lixa, azetona, plaka metalikoa, *Frecote* desmoldeatzailea, *Peel Ply* izenez ezagutzen den ehun zurigarria, sare banatzailea, hiru ahodun plastikozko bi sarrera/irteera pieza, plastikozko bi hodi elikoidal, poliesterrezko oihala, hutsa egiteko poltsa, silikonazko bi hodi, masilla horia, labea, plaka-berotzailea, termoparea eta ponpa. Material hauekin eta hurrengo pausuak jarraituz lortu dira material konposatu onduak.

Hasteko, 600 x 300 mm neurtzen duen plaka metalikoa lixa eta azetona erabiliz garbitu da. Plakaren zikinkeria kendu ondoren, *Frecote* desmoldeatzailea pintzel baten laguntzaz plaka metaliko ia osoan zabaldu da, hots, plakaren lau hegaletan 1,5 cm-ko tartea ukitu gabe utzi dira. Desmoldeatzailea lehortu ostean, ehun formako 10 karbono-zuntz lamina jarri dira plaka metalikoaren gainean, bata bestearen gainean eta erretxinaren sarrerarako beharrezkoak diren 3 ahodun plastikozko sarrera-pieza eta hodi elikoidal bat kokatu dira 39. Irudian ikusi daitekeen bezala.




**39. Irudia.** Plaka metalikoa, karbono-zuntz ehunen, hodi elikoidal eta sarrera-piezaren itxura.

Ondoren, 40. Irudian errepara daitekeen ehun zurigarria kokatu da. Ikusi daitekeenez, desmoldeatzailea eman den gunearen besteko zabalera eduki behar du eta luzeran zabalaren neurri bikoitza.



**40. Irudia.** Ehun zurigarriaren itxura material-konposatu onduaren ekoizpen prozesuan.

41. Irudian behatu daiteke hurrengo pausua: karbono-zuntz ehunaren tamainako sare banatzaile berdea karbono-zuntz ehunen gainean kokatzen da eta ehun zurigarriaren plaka metaliko kanpoko soberakinekin poliester oihala kiribiltzen da. Sare banatzailea erronboz osaturiko sarea da. Erronboak 41. Irudiaren eskuinean ageri den norabidean egon behar dira kokatuta. Geziak erretxinaren elikadura-norabidea adierazten du, hau da, erretxinaren infusio-norabidea. Poliester oihalaren neurriei dagokionez, ehun zurigarriaren zabalera bera izan behar du eta 1,5 m arteko luzera. Oihal honen funtzioa, erretxinaren infusioan erretxina geldiaraztea da.



**41. Irudia.** Poliester oihalaren eta sare banatzailearen kokapena (ezkerrean) eta sare-erronboen erretxinaren elikadura-norabidearekiko kokapena (eskuinean).

Poliesterrezko oihalaren ostean beste hodi elikoidal bat eta hutsa egiteko baliatzen den irteerako 3 ahodun plastikozko pieza jartzen dira. Ondoren, masilla horia itsastan da pieza metalikoaren perimetro osoan, hain zuzen ere, aldez aurretik *Frecote* desmoldeatzailerik eman ez den gainazal osoan (ikusi 42. Irudia).




**42. Irudia.** Irteerako hodi elikoidal eta 3 ahodun plastikozko piezaren kokapena (ezkerrean) eta metalezko piezaren perimetroan masilla horiaren kokapena (eskuinean).

Masilla horia baliatuz poltsa kokatzeko momentua da jarraian. Guztiz zigilatuta egon behar dira ertz guztiak, hutsa egiteko. Zirrikituren bat egonez gero, ez da hutsa egingo. 43. Irudian ikusi daiteke muntaiaren azken itxura.




**43. Irudia.** VARTM bidez material konposatua fabrikatzeko muntaiaren azken itxura.

LY 556 epoxi erretxinari dagokionez, jakina da aire kantitate aunitz dakarrela hornitze-unean. Airea kaltegarria denez erretxinaren ontze prozesurako, plaka-berotzailea erabiltzen da 60 °C, 60 r.p.m-ko abiadura ezarriz eta ponparen laguntzaz baitako aire kantitatea atera arazteko (ikusi 44. Irudia, ezkerra). Erretxina desgasifikatu ostean, bero dagoela, XB 3473-arekin nahasten da 44. Irudiaren eskuinaldean ageri den marroi kolorea harturik nahasteak.




**44. Irudia.** Erretxinaren desgasifikazio prozesua (ezkerrean) eta erretxina eta gogortzailearen arteko nahastearen itxura (infusioa) egin aurretik (eskuinean).

Silikonazko hodi biak labearen alde banatatik sartuta ikusi daitezke 45. Irudian (ezkerrean). Sarrerako hodia erretxina eta gogortzaile nahastea elikatzeke baliatzen da eta irteerakoa ponparen bidez hutsa egiteko eta erretxina muntaiari sartu arazteko erabiltzen da. 45. Irudiaren eskuinaldean ikusi daiteke infusioa egiten den uneko itxura.



**45. Irudia.** Labearen kanpo itxura silikonazko sarrera eta irteera hodiak agerian (ezkerrean) eta *VARIM* prozesuaren erretxinaren infusio-unea (eskuinean).

Labe-tenperatura aldeztu aurretik  $140\text{ }^{\circ}\text{C}$  izan behar da eta infusioak segundo batzuk soilik irauten dituen arren, material konposatu ondua erdiesteko ontze-prozesuak 8 ordu behar ditu zehaztutako tenperatura horretan [119]. 8 ordu horrek igaro ondoren labetik 46. Irudian ikusi daitekeen itxurako material konposatu ondua ateratzen da.



**46. Irudia.** *VARIM* fabrikazio-metodoaren bidez lortutako karbono-zuntzezko material konposatu ondua.

### 3.7 Material konposatuen karakterizazioa

Material konposatu onduen kasuan hurrengo karakterizazio-teknikak erabili dira hauen ezaugarritzerako: eroankortasun elektrikoaren neurketa, trakzio-saiakuntza, makurdura-saiakuntza eta lamina arteko erresistentzia analisisa (ILSS analisisa). Lau tekniketarako, material konposatua aurreprestatu egin behar da hasierako laginaren neurriak teknika bakoitzari dagokion lagin-neurrira egokituz. Horretarako, *Struers Labotom-3* diskodun ebakitzaille metalografikoa erabili da (ikusi 47. Irudia). Erabili den diskoa *Struers 10S25*-a izan da, hain zuzen ere karbono-zuntzezko material konposatuak ebakitzeko egokia den diskoa.



47. Irudia. *Struers Labotom-3* diskodun ebakitzaillearen itxura.

Makurdura-saiakuntzarako 12 mm-ko zabalera eta 80 mm-ko luzera duten probetak prestatu dira. Trakzio-saiakuntzarako aldiz, 15 mm-ko zabalera eta 100 mm-ko luzera duten probetak erdietsi dira. ILSS analisisian erabilitako probetei dagokionez, hauen neurriak hurrengoak izan dira: zabalaren tamaina materialaren lodiera bider 4 izan da eta luzera, 6 aldiz materialaren lodiera. Amaitzeko, eroankortasun analisirako ez da probeta-neurri zehatzik behar. Hura neurketa ez-suntsitzailea izanik, makurdura-saiakuntzetarako prestatutako probetak erabili dira neurketak egiteko. Eroankortasun neurketen ostean egin dira makurdura-saiakuntzak, azken hau saiakuntza suntsitzailea baita.

### 3.7.1 Eroankortasun elektrikoa

ASTM D257-99: *Standard Test Methods for DC Resistance or Conductance of Insulating Materials* araua jarraitu da eroankortasun elektrikoaren neurketak egiteko. Horretarako, *Keithley 2410* neurgailua erabili da. Materialari tentsio desberdinak ezartzeaz gain, bertatik igarotako intentsitatea neurtzeaz ere arduratzen da neurgailua. 0 eta 0,05 V arteko bost tentsio desberdin ezarri zaizkio probeta bakoitzari. Era honetan, puntu bakoitzeko tentsioa eta intentsitatea jakinik I-V zuzena irudikatu daiteke.

$$V(V) = I(A) \cdot R(\Omega)$$

1. Ekuazioan adierazi den Ohm-en legeak

zehazki deskribatzen du karbono-zuntzeko material konposatuek korrante elektrikoarekiko daukaten portaera. Hori dela eta, I-V zuzena irudikatuz eta honen malda erdietsiz, materialaren erresistentzia (R) kalkulatu da.

$$V(V) = I(A) \cdot R(\Omega)$$

1. Ekuazioa

Non V materialari ezarritako tentsioa, I neurtutako intentsitatea eta R kalkulaturako erresistentzia baitira.

R jakinik eta probeta bakoitzaren luzera, lodiera eta zabalera jakinik, materialaren erresistibitatea eta eroankortasun elektrikoa kalkulatu daitezke

$$\rho(\Omega \cdot m) \cdot \text{luzera}(m) \cdot \text{lodiera}(m) \cdot \text{zabalera}(m)$$

2

$$(\Omega \cdot m)^{-1} = \frac{1}{\rho(\Omega \cdot m)}$$

3. ekuazioak erabiliz.

$$R(\Omega) = \frac{\rho(\Omega \cdot m) \cdot \text{luzera}(m)}{\text{lodiera}(m) \cdot \text{zabalera}(m)}$$

2. Ekuazioa


Non  $\rho$  materialaren erresistibitatea baita.

$$\sigma((\Omega \cdot m)^{-1}) = \frac{1}{\rho(\Omega \cdot m)}$$

3. Ekuazioa

Non  $\sigma$  materialaren eroankortasun elektrikoa baita.

Neurketak egiten hasi aurretik, makurdura-saiakuntzetarako prestatutako probetak egokitu egin behar dira. Hasteko, kalibrea erabiliz probeta bakoitzaren hiru dimentsioak neurtu behar dira. Ostean, azetona erabiliz probetaren ertz biak ondo garbitu behar dira. Ertzak garbi daudenean, 48. Irudiaren a) argazkian ageri den eroankortasun altuko zilarrezko margoa aplikatzen da probetaren sekzio guztitik korrante elektrikoa igaro dadin.




**48. Irudia.** Eroankortasun altuko zilar-margoa (a), intentsitatea transmititzeko kobrezko harizpia (b) eta *Araldite* itsasgarriak (c).

Ondoren, 48. Irudian behatu daitekeen b) argazkian kobrezko harizpi eroalea kokatu behar da ertz bietan zilar-margo pixkat ganetik jarritz. Margoa ondo lehortu ostean, 48. Irudiaren c) atalean ageri diren bi itsasgarriak proportzio berdinean nahastu eta nahastearekin ertz biak estali behar eroankortasun elektrikoaren neurketetan kobrezko harizpia apurtzeko arriskurik egon ez dadin.

### 3.7.2 Makurdura-saiakuntza

Hiru puntu baliatuz gauzatutako makurdura-saiakuntzak egin dira. 49. Irudian aztertu daitekeenez, probeta bi euskarri edo arrabolen gainean kokatzen da hirugarren pieza batek erdigunean goitik beherako indar bat egiten dion bitartean. Indar bertikal honen eraginez, indarraren aplikazio puntuaren desplazamendua eragiten da, makurdura sortuz, alegia. Saiakuntza egikaritzeko, ASTM D790: *Flexural Properties of Unreinforced and Reinforced Plastics and Electrical Insulating Materials* arau estandarra jarraitu da. Horretarako, *Zwick Z-100* saiakuntzetarako makina unibertsala 5 kN-eko karga-zelularekin erabili da. Makinak hiru puntuko flexio-zubia dauka non beheko bi arrabolak nahieran mugitu baidaitezke. Erabilitako arrabolek 6 mm-ko diametroa daukate. Arrabolen arteko distantziari *Span* deitzen zaio eta probetaren lodiera baino 16 aldiz handiagoa izan behar da. Hau jakinik, saiakuntza egin aurretik probeta bakoitzaren hiru dimentsioak (luzera, lodiera eta zabalera) zehatz-mehatz neurtu dira. Saiakuntza-abiadurari dagokionez, araua jarraituz,  $1 \text{ mm min}^{-1}$  ezarri da.



49. Irudia. Hiru puntudun makurdura-saiakuntza muntaiaren itxura.

Saiakuntzaren kontrolaz arduratzen den softwareak, indarra (F) eta desplazamendu (d) balioak erregistratzen ditu. Parametro guzti hauek kontuan hartuta, tentsioa ( $\sigma$ ) eta deformazioa ( $\epsilon$ ) kalkulatu dira  $\sigma \text{ MPa} = F (N) / A (\text{mm}^2)$

$$10. \text{ Ekuazioan eta } \epsilon (-) = \frac{6.d (\text{mm}).\text{lodiera}(\text{mm})}{\text{Span}^2 (\text{mm}^2)}$$

5. Ekuazioan ikusi daitekeen bezala.

$$\sigma (\text{MPa}) = \frac{1,5.F (N). \text{Span} (\text{mm})}{\text{zabalera} (\text{mm}).\text{lodiera}^2 (\text{mm}^2)} \quad 4. \text{ Ekuazioa}$$

$$\epsilon (-) = \frac{6.d (\text{mm}).\text{lodiera}(\text{mm})}{\text{Span}^2 (\text{mm}^2)} \quad 5. \text{ Ekuazioa}$$

Honez gain,  $\sigma$  maximoak kalkulatu dira izaera desberdineko probeten saiakuntzetan erdietsitako balioak elkarren artean erkatzeko.

### 3.7.3 Lamina arteko erresistentzia

Lamina arteko erresistentzia ingeleseko sigletatik eratorritako ILSS (*Interlaminar Shear Strength*) moduan ere ezagutzen da. Lamina arteko ebakidura erresistentzia kalkulatu da saiakuntza honen bitartez. Kasu honetan, ASTM D2344: *Short-Beam Strength of Polymer Matrix Composite Materials and Their Laminates* arau estandarra jarraitu da saiakuntza-parametroak zehazteko, hala nola, probeten neurriak, beheko bi euskarrien arteko distantzia (*Span*, izenez ezagutua) eta goitik beherako indarra egiten duen gailuaren desplazamendu abiadura zehazteko. Desplazamendu-abiadura  $1 \text{ mm min}^{-1}$  izan da. Saiakuntzetan erabilitako zelula-karga  $5 \text{ mm} = \text{lodiera} \text{ mm}$ .

$$6. \text{ Ekuazioa } \text{zabalera} \text{ mm} = \text{lodiera} (\text{mm}). 2 \quad 7. \text{ Ekuazioa } \text{Span} \text{ mm} = \text{lodiera} (\text{mm}). 4$$

8. Ekuazioa erabili dira.



$$luzera (mm) = lodiera(mm).6$$

6. Ekuazioa

$$zabalera (mm) = lodiera (mm).2$$

7. Ekuazioa

$$Span (mm) = lodiera (mm).4$$

8. Ekuazioa

Arauk dioenez, habe laburren hiru puntuko makurdura-saiakuntza egin da 50. Irudian erreparatu daitekeen *Zwick Z-100* saiakuntzetarako makina unibertsalean.



**50. Irudia.** Lamina arteko ebakidura erresistentzia neurtzeko saiakuntza-muntaia.

Saiakuntzaren kontrolaz arduratzen den softwareak, indarra (F) eta desplazamendu (d) balioak erregistratzen ditu. Probeta bakoitzaren lamina arteko erresistentzia ezagutzeko, saiakuntza bakoitzaren tentsio-deformazio kurbak marraztu dira. Une bakoitzeko tentsioa kalkulatzeko

$$\sigma (MPa) = \frac{1,5.F (N)}{lodiera (mm).zabalera (mm)}$$

9. Ekuazioa erabili da.

$$\sigma (MPa) = \frac{1,5.F (N)}{lodiera (mm).zabalera (mm)}$$

9. Ekuazioa

Tentsioak ezagunak izanik, tentsio maximoaren balioa dagokio lamina arteko erresistentziari.

### 3.7.4 Trakzio-saiakuntza

Trakzio-saiakuntza material jakin baten probetak, luzatzeari ezartzen dion erresistentzia, hau da, gorputzaren ardatzaren norabidean trakzio esfortzu bat ezartzerakoan honek ezartzen duen erresistentzia neurtzean datza. ASTM D3039: *Tensile Properties of Polymer Matrix Composite Materials* arau estandarrean oinarrituta garatu da saiakuntza hau. Horretarako, *Zwick Z-100* saiakuntzetarako makina unibertsala erabili da, 100 kN-eko karga-zelulaz baliatuz. Saiakuntza-abiadurari dagokionez, araua jarraituz, 1,3 mm min<sup>-1</sup> ezarri da.

Saiakuntzaren kontrolaz arduratzen den softwareak indarra (F) eta desplazamendu (d) balioak erregistratzen ditu. Honez gain, saiakuntza-probeta bakoitzaren neurriak (luzera, zabalera eta lodiera) zehaztasun handiz neurtu dira. Parametro guzti hauek kontuan hartuta, tentsioa ( $\sigma$ ) eta deformazioa ( $\varepsilon$ ) kalkulatu dira.

$$\sigma \text{ (MPa)} = \frac{F \text{ (N)}}{A \text{ (mm}^2\text{)}} \quad 10 \text{ eta} \quad \varepsilon \text{ (-)} = \frac{d-d_0}{d_0}$$

11. ekuazioetan ikusi daitezkeen bezala.

$$\sigma \text{ (MPa)} = \frac{F \text{ (N)}}{A \text{ (mm}^2\text{)}} \quad 10. \text{ Ekuazioa}$$

$$\varepsilon \text{ (-)} = \frac{d-d_0}{d_0} \quad 11. \text{ Ekuazioa}$$

Honez gain, saiakuntza bakoitzean lortutako tentsioak eta deformazioak erabiliz  $\sigma$ - $\varepsilon$  kurba irudikatu da, Young modulua (E) kalkulatzeko.

$$E \text{ (MPa)} = \frac{\Delta\sigma}{\Delta\varepsilon}$$

12. Ekuazioan behatu daitezke hura kalkulatzeko adierazpen matematikoa. Arauak E-ren kalkulua  $\Delta\varepsilon$  0,002 den tartean egitea hobesten du.

$$E \text{ (MPa)} = \frac{\Delta\sigma}{\Delta\varepsilon} \quad 12. \text{ Ekuazioa}$$

Arestian aurkeztutako hiru parametro hauen ( $\sigma$ ,  $\varepsilon$  eta E) maximoak kalkulatu dira izaera desberdineko probeten saiakuntzetan erdietsitako balioak elkarren artean alderatzeko. 51. Irudian trakzio-saiakuntza makinaren itxura ikusi daiteke.



51. Irudia. Trakzio-saiakuntza makinaren itxura.

### 3.8 Karbono-zuntzaren karakterizazioa

Bai karbono-zuntz birjinaren bai karbono-zuntz birziklatuaren egoera morfologikoa edota propietate mekanikoak ezagutzeko jarraian azalduko diren karakterizazio-teknikak baliatu dira.

#### 3.8.1 Ekorketa bidezko mikroskopia elektronikoa

Ekorketa bidezko mikroskopia elektronikoa, ingeleseko sigletatik SEM (*Scanning Electron Microscopy*) bezala ezagutua, erabili da karbono-zuntzen ezaugarritze morfologikoa egiteko.

Mostoleseko *Universidad Rey Juan Carlos* unibertsitateko Zientzia eta Materialen Ingeniaritza Saileko *Hitachi S-3400N* mikroskopioa erabili da. Karakterizazioan zehar 10 kV-eko azelerazio-voltaia ezarri zaie laginei eta elektroien sekundarioen detektagailua erabili da batik bat.

Era honetan, 100, 500, 1000, 2000, 4000 eta kasu batzuetan 5000 handipenetara aztertu dira laginak, karbono-zuntzen luzetarako eta zeharkako irudiak lortuz eta ondorioz beraien diametroa zehaztuz. Honez gain, teknika honen bitartez karbono-zuntzen gainazalaren zimurtasunaren egoera eta *sizing* (karbono-zuntza babesten eta erretxina eta karbono-zuntzaren arteko lotura hobetzen duen polimeroa) delakoaren edota polimero-hondakinen presentzia aztertu da.

#### 3.8.2 X-izpien bidezko difrakzioa

X-izpien bidezko difrakzio-teknika, ingeleseko sigletatik XRD (*X-ray diffraction*) moduan ezagutua, erabili da karbono-zuntz birjinen eta karbono-zuntz birziklatuen egitura kristalinoa determinatzeko.

Mostoleseko *Universidad Rey Juan Carlos* unibertsitateko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren ardurapean dagoen  $\theta/2\theta$  geometría duen *Panalytical-en X'Pert PRO Difraktometroa* erabili da. Teknika honen bitartez, karbono-zuntz desberdinen kristalinitate maila aztertu da.



## **4. KAPITULUA: Emaidzak eta emaitzen eztabaida**

## 5. KAPITULUA: Ondorioak



## 5. Ondorioak

Pirolisiaren bitartez, material konposatu berriak ekoizteko erabilgarriak diren karbono-zuntzak berreskuratzea eta beste alde batetik, pirolisian sortutako gas kantitatea handitzea, bere baitako sintesi-gasa ( $H_2+CO$ ) gailenduz, eta kondentsatu kantitatea gutxitzea, bere baitako fase organikoa gutxituz, jomuga izanik, honako ondorioak erdietsi dira Doktoretza Tesi honetan:

### Ondorio orokorrak:

- ⇒ CFRP-ak pirolisi konbentzionalaren bitartez tratatzen direnean hiru produktu lortzen dira: solidoa, kondentsatua eta gasa. Hiru produktuen artean solidoa gailentzen da (karbono zuntzak dituen), hurrengoa kondentsatutako likidoa eta azkenik gasa. Kondentsatuetan bi fase agertzen dira: fase organikoa (mundrunak) eta fase urtsua. Likidoen kantitatea handia izateaz gain, beraien baitako mundrun kantitate altua ikusi da, beraien baliagarritasuna eragozten duena era berean.
- ⇒ Tesi honetan pirolisi-bitartez birziklatutako CFRP-en matrize polimerikoaren balio materialaren berreskurapena lehenengo aldiz ikertu da, pirolisian sortutako lurrin eta gasen tratamendu termiko-katalitiko bat aplikatuz. Horretarako, pirolisi-erreaktorearekiko seriean, hodi-erreaktore bat kokatu da. Tratamendu termiko-katalitikoa erabiltzean, orokorrean, gas kantitatea handitzen da, bere baitako sintesi-gasa ( $H_2+CO$ ) gailenduz, eta kondentsatu kantitatea gutxitzen da, bere baitako mundrun kantitatea txikiagotuz edo guztiz ezabatuz.
- ⇒ Tratamendu termiko-katalitikoa izaera kimiko ezberdineko erretxinei eta egoera fisiko ezberdineko CFRP-ei (pre-prega eta material konposatu ondua) aplikagarria da.
- ⇒ Tesi honetan proposatzen den karbono-zuntzeko material konposatu hondakinak birziklatzeko prozesua teknikoki bideragarria dela baieztatu da berreskuratutako karbono-zuntzarekin material konposatu berriak ekoiztuz eta beraien ezaugarriak aztertuz.



Ondorio zehatzak:

**Karbono-zuntz birziklagarriak** berreskuratzeari lotutako ondorioak

*·Polibenzoxazina prepreg-arekin egindako saiakuntzetatik eratorritako ondorioak·*

- 500 °C-an erretxina polimerikoa guztiz deskonposatze aldera **beroketa-abiadura** motela (3 °C min<sup>-1</sup>) mesedegarriagoa da beroketa-abiadura altuagoa (12 °C min<sup>-1</sup>) baino, hurrengoengatik:
  - ⇒ SEM irudietan oinarrituz, beroketa-abiadura motela ezarri zaion laginean errez bereizten dira karbono-zuntzak; beroketa-abiadura altua ezarri den kasuan, aldiz, erretxina-hondarrak ikusten dira.
  - ⇒ Indar atomikoen mikroskopiaren bitartez erretxinaren presentziaren erakusgarri den topografia uniformeak ikusi da beroketa-abiadura altuarekin egindako saiakuntzen solidoan. Beroketa-abiadura motela erabili den saiakuntzetan berreskuratu den solidoaren topografia punta-zorrotzek erretxina desegin dela eta txar partikulak agertu direla erakusten dute.
  - ⇒ Gainazal-zimurtasun parametroak aztertuz ere, pirolisi moteleko solido pirolisatua gainazal-zimurtasun handiagoa ikusi daiteke beroketa-abiadura altuarekin lortutako solido-pirolisatuarekin alderatuta. Gainazalaren zimurtasuna handitzen doa erretxina polimerikoa kentzen doan ahala.

*·Epoxi prepreg-arekin egindako saiakuntzetatik eratorritako ondorioak·*

- 2<sup>k</sup> diseinu faktorialean oinarritutako *Esperimentuen Diseinuaren Teoria* aplikatu da karbono-zuntzekin dauden txarra edota erretxina-hondarrak ezabatzeko oxidazio-prozesuaren aldagai garrantzitsuen (oxidazio-tenperatura eta oxidazio-denbora) balio egokienak lortzeko. Bai matematikoki baita esperimentalki ere, oxidazio-denbora luzeak eta tenperatura baxuak ezartzea eraginkorragoa dela karbono-zuntz garbiak berreskuratzeko ondorioztatu da, baldintza onenak hurrengoak izanik: oxidazio-tenperatura 500 °C eta oxidazio-denbora 165 min. Baldintza hauetan erretxina edota txar-ezabapen errendimendua % 98,2 izatea lortu da.

*·CFRP onduarekin egindako saiakuntzak·*

- Oxidazio-ostean berreskuratutako karbono-zuntzak, alde batetik, orokorrean garbiak direla ikusi da karbono-zuntzen luzetarako hainbat *SEM* irudietan. Beste alde batetik, berreskuratutako karbono-zuntzak ez direla bortizki kaltetuak izan ondorioztatu da, karbono-zuntzen zeharkako diametroaren murrizketa ikertuz eta berreskuratutako karbono-zuntzek ez dutela kristalinitatea galdu ikusiz, *SEM* irudiak behatuz eta X-izpien bidezko difrakzioaren neurketa eginez, hurrenez hurren.
- Tesi honetan frogatu den birziklapen metodoarekin berreskuratutako karbono-zuntzekin material konposatu berriak ekoiztea lortu da *VARIM* metodoaren bidez.
- Ekoiztutako material konposatu berriaren eroankortasun elektrikoa, *Young* modulua, makurdura elastikotasun-modulua eta laminarteko erresistentzia maximoa aztertuta ikusi da, prozesuan sartu nahi den laginaren errektore-barneko posizioa eta airearen elikatze-puntua esanguratsuak direla berreskuratutako karbono-zuntzaren kalitate homogenoa lortzeko.
